

ttipi ttapa

367

2004ko otsailaren 5a • XXIV. urtea



Ana Mari Marin
margolari elizondarra **04**


Margolari, Baztango zinegotzi, Elizondoko alkate... hainbat arlo landu ditu Ana Mari Marinek eta horietako batzuk agertu dira berriki argitaratutako liburuan.



Beti Gazte taldea
Munduko txapelketan **28**

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketaren ondotik, otsailaren 19tik 22ra Munduko txapelketan parte hartuko dute lesakarak Eskozian.

03 Patxi Vila: Bizikletari emandako bizimodua



Estetika

estetika gida • estetika gida • estetika gida

RUTA
ESTETIKA

ILEAPAINDEGI MIXTOA • SOLARIUM
SYSTEM PRODUKTUAK ETA TRATAMENDUAK
Tel: 948 637 436

MARIA
ILEAPAINDEGIA

Tfnoa: 948 450 922
San Migel
DONEZTEBE

• Manikura • Makilaia
• Estetizien • Solarium

Masaje eta
depilazioak
Ana 676 198 556

Pimpin
ILEAPAINDEGIA

Aitziber
Ubiria Santesteban

Plaza zaharra 26
31770 LESAKA
Tfnoa: 948 63 80 37

Lilura
Ileapaindegia

Rosa Seminario, 17
Tfnoa: 948 45 19 61
DONEZTEBE

8-9-13 / 15-20
Lurmutzetan: 9-17

burbuila
ileapaindegia • estetika
solarium

Bizkaia, 1, atzila LESAKA • Tfnoa: 948 633 004

Beatriz
Estetika Zentroa
Lurrindenda

Santiago 53 • ELIZONDO • Tfnoa: 948 580 283

Osasuna

osasan gida • osasan gida • osasan gida

- >>>>> Optikak
- >>>>> Hartz klinikak
- >>>>> Podologia
- >>>>> Logopedak
- >>>>> Belardendak
- >>>>> Masajistak
- >>>>> Psikologia

**Ostargi
Optika**

OPTIKO OPTOMETRISTA

- Ikusmen azterketa orokorrak
- Lentillen adaptazioa
- Begietako tentsioaren kontrola
- Ikusmen terapiak
- 2-3 urteetatik aurrera haurren errebisioa

Bidasoa 6 • BERA • Tfnoa: 948 630 753

**ROSA BELZUNEGI
PSIKOANALISTA**

kontsultarako eskatu ordua

Tfnoa: 948 27 20 11 (IRUÑA)
Jaime Urrutia, 42-2.D • ELIZONDO
Tfnoa: 948 58 09 75

**MASAIA eta
BIZKORTZE ARIKETAK**

**Txomin IRAZOKI
Fisioterapeuta**

Eztegara, 24 • BERA
Parrokia, 5 • DONEZTEBE
Tfnoa: 670 471 200

DATUAK...

- Duela 28 urte sortu zen Beran Patxi Vila txirrindulari profesionala. Baneston aritu ondotik, bigarren denboraldiari ekin dio Italiako Lampre taldean. Bertze lau-bortz urtez txirrindularitzan segitzeko intentzioa du.
- Ttikitan hasi zen bizikletan, sei urtetarako konpetitzen ari zen C.C Beratarran. Herriko bi taldeak elkartu zirenean Gure Txokoan hasi zen eta kadete mailan AHV taldean. Afizionatutan Sicesal taldean hasi zen eta gero Caja Ruralera egin zuen salto.

Patxi VILA *Berako txirrindularia*

ARGAZKIA: JOSEBA OLAGARAI

«Nere ametsak bideratzeko modua izan da bizikleta, ogibideaz gain»

Joseba OLAGARAI

Zer moduz Italiako Lampre taldean, aldaketa haundia izan al da?

Hagitz ongi. Nere lanean gauza aunitz baloratzen ditut eta horietako bat taldean gustora eta identifikatua sentitzea da. Horregatik joan nintzen Italiara, bertan zegoen Juanma Garate nire lagunmina eta dudarik egin gabe, maletak hartu eta joan nintzen.

Aunitz aldatu dizu bizia bizikletak Patxi?

Bai, batez ere azken lau urtetan. Bizikleta ez da ogibidea bakarrik nerezat, bere garaian nere ametsak bideratzeko modua ere izan da. Dudarik gabe garrantzi haundia du bizikletak eta, orokorrean, kirolak nere bizitzan. Nere nortasuna kirolak markatu du. Bizikletak zure buruari gogor egiten erakusten dizu, erabakiak hartzen... Bertze aldetik, gauzak ere kendu dizkit: negar egin dut une berxietan hemen ezin egoteagatik, nere lau ilobetatik hiru hemendik kanpo nengonean jaio ziren. Momentu horietan amorrua ematen dizu.

Nolakoa da Patxi Vilaren egun bat?
Goi mailako kirolari batek ordena izan

«Jendearentzat arruntak diren gauzak guretzat kasik debekatuak daude: denbora aunitz xutik edo kea dagoen lekuan egotea, etxera berandu joatea, aunitz jatea...»

behar du, bertzela hagitz normala da. Gauzak ahalik eta modu zehatzenean egin behar izaten ditut egunero eta aunitz nere egunak bata bertzearen kalkoak dira.

Erraten dute kirolariak 24 orduz izan behar duela kirolari...

Bai, hala da. Ez da lana seieta akautu eta hurrengo egunerarte, listo! Jendearentzat arruntak diren gauzak guretzat kasik debekatuak daude: denbora aunitz xutik egotea, etxera berandu joatea, kea dagoen lekuan egotea, aunitz jatea... hasieran arraroa egiten da baina ohitzen zara.

Tarteka parrandaren bat eginen duzue bada...

Neguan probexten dugu udan eta denboradi osoan egin ezin duguna egiteko. Denbora gehiegi ez dugu, baina urte guzirako pilak kargatzen

eta gelditzen zaizkigun palizentzako morala hartzen saiatzen gara.

Bertze afera bat, pertsona ezaguna izatearena da. Nola daramazu hori?

Erreka honetan ezagutzen naute, baina hemendik kanpo normalean ez da horrela, konpetiziotan ez baldin bada. Txirrindularitza segitzien duen jendeak ezagutzen zaitu, baina normalean jendeak kanpoan ez nau ezagutzen. Ni ez naiz famatua sentitzen.

Zure ibilbide osoan momentu bat aukeratzeko eskatuko banizu...

Beharbada emaitzen aldetik eta pozaren aldetik afizionatutako lehen garaipena. Gero, Etxabarrik profesionaletan hasteko deitu zidanean ere ez zait sekula atzanduko, broma zela uste nuen. Milanen, joan den urteko Giroan, nire hiru astetako lehen karrera akautu nuenean ere hagitz hunkigarria izan zen. Gainera, taldeka irabazi genuen eta podiuma zantpatzea haundia izan zen. Urtero bada horrelako momentu bat, barren barrenen markatua gelditzen dena eta espero dut hemendik aitzinera ere gehiago izatea.



ARGAZKIAK: ANA MARIN LIBURUTIK BILDUAK

Ana Mari Marin, inspirazio iturri duen Baztango paisaia margotzen.

Ezinezkoa da Ana Mari Marin hitz bakarrarekin definitzea: margolaria, artezalea, lehendabiziko emakume zinegotzia Baztanen, Elizondoko lehen emakume alkatea, Jorge Oteiza zenaren lagunmina, Baztandarren Biltzarraren edo Museo Etnografikoaren bultzatzailea... Bertze hainbat kontu gehitzen ahal dira, bere biografia zabalari begiratuta. 1933ko abuztuaren 13an sortua Elizondon, Gerraren ondorioz Iparraldera ihes egin behar izan zuen familiarekin, aita Baztango alkate izan baitzen Errepublika garaian. Baina abudo gerra soinuak somatu ziren Frantzian eta Ana Mari eta Elisa ahizpa Donostiara itzuli ziren, Elisa Arin amonarekin. Ana Marik hamabortz urte zituenean bueltatu zen familia osoa Elizondora eta bizi emankorra izan du Baztanen. Martin de Retana editorearen eskutik, bere bizitzari eta lanari buruzko liburua argitaratu da eta hori aitzakitza hartuta, Ana Mari Marinekin elkartu gara.

ANA MARIN: MARGOLARI, ALKATE, KANTARI...

Moldeak hautsi dituen emakumearen lana eta bizia liburu batean bildu dira

Aitor AROTZENA

Arlo arras ezberdinetan aritu da lanean Ana Mari Marin, baina ez du horietako bakarrarekin gelditu nahi. Berak dioenez, «norbera bere kezkekin sortzen da eta kezkek daudenean, horiek moldatzen saiatzen da bizitzaren arlo ezberdinetan eta herriaren zerbitzura jartzen. Seguruenik haurtzarora Elizondotik kanpo bizi izanak eragina izan du nere sorterriaren alde lan egiteko gogo haundiagoa izateko».

Bizitzaren zati haundi bat bertzei eskaintzea izan da Ana Mari Ma-

rin gehien bete duena. Horregatik, zerbait aukeratzekotan, Baztango Udalean egindako lanarekin gelditzen da. «Lehendabiziko emakume zinegotzia izan nintzen. Orduan familia buruak bakarrik sartzen ahal ziren udalean eta orduan amaren etxetik alde egin behar izan nuen aurkeztu ahal izateko. Nire ustez, aurkeztu izan ez banintz Elizondo eta Baztango arkitektura arras aldatua izanen genuke orai, kalterako. Elizondon 7-8 alduerako etxebizitzak egiten ari ziren eta Balleko Etxean sartu nintzenean hori geldiaraztea eta hiru alduerara

jaustea lortu nuen, bertze batzuen laguntzarekin. Horretaz harro nago». Arestian aipatu bezala, aita Baztango alkate izan zen Errepublika garaian eta horrek eragina izan du Ana Mari Marinek herriaren alde gizarte arloan lan egiteko. Gizarte arloa diogu, berak ez baitu bere burua politikotzat jotzen. «Nik ez dut politikaz ulertzen, ekintzak ulertzen ditut. Beti nere jarrera eta pentsamoldeak izan ditut, baina orduan ez zen alderdirik izaten Herriko Etxean». Bertzelako eragin bortitzagoa ere izan zuen bere aitaren karguak Ana Mariren bizi-

HARREMAN SAKONA JORGE OTEIZAREKIN

«Nire solasaldiak Oteizarekin aberastutako frontisean errebotatzen duen pilota dira. Beraz bi pertsona naiz eta bi margolari...». Ana Marinek Alzuzan 1986an idatzitako esaldi honek argi azaltzen dute Jorge Oteizarekin izan zuen lotura estua. Duela 50 urte elkar ezagutu zuten Orion, Joaquina Embil izebaren etxean. Urruneko lehengusuak ziren, «funeraleko senideak». 1979an berriz ere harremanean jarri zen Orioko artistarekin, Elizondoko Herriko Etxeko behegian, garai bateko gartzelean, presatu zuen erakusketarako lanen bat uzteko. Garaiko artista onenen lanak izan zituen erakusketak: Oteiza, Basterretxea, Ibarrola, Anda, Santxotena, Akerreta, Mentxu Gal, Mariano Royo eta Salaberri.

1980. hamarkadan, Xabier Landa argazkilaria Otei-



Jorge Oteiza artista oriotarra, Ana Mari Marin lagunminarekin.

zaren lanaren bilduma egiten ari zen eta berriz ere elkartu ziren. Ordutik beraien harremana sendotu zen. Itziar, Oteizaren emaztea hil zenean, Lekarozko ikastetxera etorri zen oriotarra eta bertan solasaldi luzeak izan

zituena Ana Marirekin. Honek ez du bere artea aztertzen, Oteiza pertsona gisara baizik. «Beretaz gehien gustatzen zaidana, kritikatzuz eta bultzatuz gure lurra hobetzeko indarra nola ateratu duen izan da, interes par-

tikularren ginetik». Bere harremanari esker posible izan da Oteizaren lan bartzuk Baztanen gelditzea, Elizondoko Santiagori Otoitza erraterako. Elizondoko Museo Etnografikoak ere Jorge Oteizaren izena darama.

tzan, hiru urte zituenean Iparraldera alde egin behar izan baitzuen, nahitaez, familiarekin. «Lehenik Luhu-sora joan ginin, bertze herri tiki bartzuetara ondotik, gero Donibane Garazira, beti ihesean...». Haurtzaroko oroimen gutti ditu margolariak, baina alemanak Baionara sartu zirenekoa gogoan du: «Argiak itzali behar ziren eta leihotik kirikan ibiltzen ginen alemanak ikusteko». Horren eraginez, haurrak Donostiara itzuli ziren amonarekin. «Mariaren Konpainiako ikastetxean izan nintzen Donostian eta Irunen. Berako eta erreka neskahiago baziren».

BAZTANGO HERRIETAKO ALKATEEN BALIABIDE ESKASIA

Baztanera bueltan, Ana Mariren ama eta bera izan omen ziren ballean galtzak jantzi zituzten lehen emakumeak. «Emakumeak bidea irabazi beharra zuen, ez galtzen bidea bakarrik, bertze aunitz irabazi beharrak ditu oraindik orain. Gizonak aisa elkartzen dira eta emakumeok ere gehiago elkartu beharko genuke baitaila gehiago irabazteko». Elizondoko lehen emakume alkatea izan zen eta beti kritikatu du izan duten baliabide eskasia. «Lehen zituen esku-menak galtzen joan da, batez ere Balleko Udalak kendu dizkiolako».



Zure margolan aunitz Baztango bazterrak ageri dira. Zure herrial da zure inspirazio iturri nagusia?

Noski, baina ez bakarrik nere herria delakoz, bere kolorearengatik baizik.

Ana Mari MARIN Margolaria

Udazkenean hartzen dituen kolore gorrixta horiek... Zoragarria da! Baztan eta Bidasoa erreka osoa zoragarria da margotzeko, Hondarribiako barkuak...

Gorrixtak gogoko dituzu, ez ordea urdina...

Nire koadroetan ez duzu sekulan zeru urdin-urdina ikusiko, beti bada hodeiren bat. Behar bada bizitzak ere bere hodeiak dituela erakusteko modua da.

Van Gogh eta Menchu Gal margolari irundarra omen dituzu maiztatzat...

Kolorea aunitz erabiltzen zuen Van Goghek eta erabiltzen du, oraindik orain Menchu Galek. Be-

raien eragina izan dut, baina bertze museo eta leku aunitzetara joan naiz, iturri ezberdinetatik edateko eta oinarri ezberdinak barneratzeko. Iberian lan egin nuen bidaiatzeko aukera izan nuen eta ez nuen museorik uzten bisitatu gabe. Horrek inspirazioarako laguntza ematen duen ezagutza gehiago eman dit. **Liburuak aipatzen duenez, egunero 10-12 ordu eman behar dituzu margotzen zure buruarekin gustora egoteko.** Bai, bai... Atzo berean goizez iruñean izan nintzen, baina arratsaldeko 4etatik gaueko 11etara margotzen izan nintzen. Gero eta gehiago!

“Baztan eta Bidasoa erreka osoak kolore zoragarriak ditu udazkenean, gorrixta horiek ederrak dira”

Lege Gordailua: NA-1324/85

ISSN: 1578-4673

Frankeo Itundua: 34/79

Tirada: 6.000 ale

ttipi-ttapa aldizkaria

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa:(+34) 948 63 11 88

Faxa:(+34) 948 63 12 91

ttipi-ttapa@topagunea.com

Jabea: ttipi-ttapa fundazioa.

Presidentea: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arotzena.

Publizitatea: Kulturkari, SLU

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arotzena.

Berriemaileak: Mikel Illarregi, Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Peio Zestau, Iban Isasi,

Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Xan Harriague, Sasaki, Angela, Ihintza eta Eneko, Nerea Altzuri, Oskar Txopere-

rena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxel-

torena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Raket Gofii.

Kolaboratzaileak: Rakel Amigo, Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa...

Inprimategia: Gertu. **Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

• IRAKURLEAK MINTZO •

Lesaka preso eta iheslariekin bat

Urtero bezala, pasa zaizkigu eguberriak aurrean, eta horrekin batera, normalean etxekoekin egoteko aukerak ditugun egunak. Baina badira egon, urte guztian zehar bezala, egun esanguratsu hauetan gure ondoan, edo eta beraien etxekoekin ondoan egoteko aukerak izan ez duten 700 preso eta 2000 iheslari inguru. Gainera etxekoekin berotasunetik oso urrutiti, urrutietan, pasa behar izan dituzte egun hauek. Hori gutxi balitz, azken urte hauetan, Euskal Preso Politikoen aurkako neurri zentzugabeak jarri dituzte martxan (ikas-teko eskubidearen debekua, gaixo dauden presoek aurkako neurriak, berrogei urteko kartzela

zigorra...). Baina Lesakan, Euskal Herriko beste hainbat tokietan bezala, preso eta iheslariekiko elkartasuna adierazten jarraitzen du jendeak etengabe. Horren erakusle, egun hauetan komertzio, ostatu... emandako produktuekin osatutako saski erraldoia. Kasu honetan Lesakako gizarteak erakusten digu benetan arazoari irtenbidea eman behar dioten alderdi politikoak baino aurreratuagoa dabilela, eta presoek urteetan daramaten duintasun borroka ulertzen duela. Amnistiaren aldeko mugimendutik eskerrik asko saski hau osatzen lagundu duzuen guztioi... Azken egun hauetan beste ekimen batekin ari gara lanean, Lesakako udalean sartutako presoekin elkartasun mozioarekin. Amnistiaren aldeko

mugimendutik jakinarazi nahi dizuegu preso eta iheslarien aldeko lanean jarraituko dugula, eta hauen aurka egiten diren bidetarako guztiak salatuko ditugula.

Lesakako Amnistiaren Aldeko Komitea.

Gure Txokoa elkartearen esker ona

Ohar honen bitartez, Gure Txokoa Elkartek bere esker ona adierazi nahi die pasa den urtarriaren 4an, beren laguntzari esker Berako Ziklo Kross Saria posible egin zuten guztiei. Eta bereziki Berako suhiltzaile, zirkuitoak zeharkatzen zituen belategietako jabe, patrozinadore eta modu batean edo bertzean proba hau jokatzea ahalbidetu duen pertsona orori.

Gure Txokoa Elkarteak

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria	26 €
Espainia	26 €
Ipar Euskal Herria	36 €
Europa	36 €
Amerika	107 €
Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Areso	21 €



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

UDALBILTZA
EUSKAL HERRIKO UDAL
ETA UDAL HAUTETSIEEN BILTZARRA

UDALBILTZA[®]
denon giza-eskubide guztien alde egonik,
Euskal Herriko herrien arteko senidetze
programa berezia abiarazi du: **HURBILTZEN**

www.udalbiltzainfo.com

• PRENTSATIK BILDUTAKOAK •



GARA 2004-01-16


«Sagardo ona beti egin da Nafarroan, ez bakarrik azken aldi honetan. Gure arbasoek ere arras sagardo ona egiten zuten. Sagardoa Gipuzkoakoa dela topiko bat da, batez ere gipuzkoarrentzat, beraiek bakarrik egiten dutela uste baitute. Baina Kantauri osoan egiten da, hasi Galizatik eta Britainiaraino, Normandian, Ingalaterran, baita Austrian eta Alemanian ere. Bakoitzak bere ezaugarriekin egiten du».

Jesus Angel GARCIA
Larralde sagardotegia
Gara 2004-01-16

«Estatu Batuetara etorri aitzin bertsolaria nintzen. Nafarroako txapelketa batean parte hartu nuen eta bigarren izan nintzen. Azpillaga eta Lazkao Txikirekin ere kantatu nuen. Amerikan Gorritiko Martin Goikoetxea ezagutu nuen eta geroztik elkarrekin kantatu dugu».
«Lehenago bertsolariak gehiago ezagutzen nituen eta horien artean Xalbador, Uztapide, Lasarte eta Lazkao Txikirekin gelditzen naiz, Lopategi ere gustatzen zitzaidan».

Jesus GOÑI
Bertsolaria Nevadan
D.Noticias 2004-01-22

• 11 GALDERA LABUR •



Patrizia LEIZA
Etxalarko Bentako igerilekuko arduraduna

Igerilekuak udarako dira bakarrik?

Ez, urte osoan egin beharko zen.

Kanpoan elurra eta kazkabarra ari duenean, urean sartzeko ohitura badu jendeak?

Aunitz kostatzen zaie, kristalen kontra asotsa aditzean izitu egiten dira.

Igeri egiteko itsasoa, erreka edo igerilekua?

Igeri egiteko piszina, jostatzeko erreka.

Harat honatean abentura bila ondotik, orain baretu zarela erraten ahal da?

Nahitaez laketu behar izan dut, independenteziak dependiente bihurtzen zaitu, diru aldetik.

Ezagutu duzun lekurik politena?

Toki bakoitzak badu bere xarma, denetara bueltatuko nintzateke.

Yosemite mendiak edo Iparla?

Iparla hemen nagoenean, eta Yosemite Kalifornian nagoenean.

30 urteko muga hurbil ikusterakoan, zer sentitzen da?

Sentsazio txarra. Aspalditik ez dut nire urteak argi eta garbi erraten.

Nepalera joateko ametsa bete duzu?

Bi hilabetez egon nintzen, baina berriz bueltatu behar dut.

Hemengoez gain, Afrika, Amerika edo Asiako erreka ezagutu dituzu piraguan. Zein dira hortarako egokienak?

Zimbabwe eta Nepalekoak bolumen handiko erreka dira.

Zenbat aldiz aditu duzu horiek ez direla emakumeen kirolak?

Niri ez didate aunitz erran, genio handia dudalako. Nepalen aunitz harritzen ziren, baina hemen ere badira halakoak.

Eta zer erantzuten diezu?

Bakoitzak baditu bere mugak, gizona nahiz emakumea izan.

Foruen Plaza 2 • BERA
tel.: 948 625 542
faxa: 948 625 541

Rafa
600 819 640
PINTURAS LEGUIA S.L.
Eztegara 26, 2.C - BERA

Javier Manterola
TEKNIKO
INSTALATZAILEA
iturgintza • gasa • kalefakzioa
Tfnoa: 629 44 96 02 • BERA

© 948 63 11 88

LESACA

Harategia
Eztegara 3
Tfnoa: 948 630 198
BERA

ERREKA DE
OSTAUA
PLATER
KONBINATUAK
PINTURAK
BOKATIAK

LANA

Doneztebeko INEMen izen emandako langabetuen kopurua %25 jautsi zen iaz

Urtarrilean 692 lagun zeuden lanik gabe eta abenduan 517 bertzerik ez

ttipi-ttapa

Joan den urtean %25 baino gehiago jautsi zen langabetuen kopurua eskualdean, Doneztebeko INEMek emandako datuen arabera. Abenduaren 31n 517 lagunek emana zuten izena bulego honetan, 2003ko urtarrilean 692 zeuden bitartean. Beraz, urte osoan 175 lagunek lortu zuten lanean hasia, horietatik 91 gizon eta 84 emakume.

Joan den urte hasieran, 309 gizaseme eta 383 emakume zeuden langabezian. Urte bukaeran, berriz, 218 gizaseme eta 299 emakume zeuden. Okupazioari dagokionez, urria izan zen hilabetarik onena, 489 langabetu bertzerik ez baitzeuden, 204 gizon eta 285 emakume. Hilabetarik txarrena, preziskia, urtarrila izan zen, 692 langabetearekin. Geroztik, gorabehera batzuekin beheiti egin du langabezia eskualdean.

Sexuari dagokionez,



ARTXIBOKOA

Langabeziak nabarmen beheiti egin zuen eskualdean joan den urtean.

egoera aunitz hobetu baldin bada ere, emakumeak dira lan merkatuan sartzeko arazo gehien dutenak. Alde batetik, prestakuntzarik gabekoak daude, baldintza eta ordutegi jakin batzuetan lan egin nahi dutenak eta bertzetik, prestakuntza haundikoak, bere ikasketei egokitutako lanak eskualdetik kanpo bilatzen dutenak. Bertze al-

detik, lan eskaintzarik haundiena gizasemeei zuzendutakoa da, lan batzuk egiteko fisikoki hobeki prestatuagoak daudela uste baitute enpresariak. Emakumeei zuzendutako eskaintzak arlo zehatzetan ematen dira, merkataritza arloan, ostalaritzan eta zerbitzuetan, Malerreka eta Bortziritako garapen agentzietatik aipatutakoaren arabera.

Hilabeteka, urtarrilean 692 langabetu zeuden erregistratuak, 309 gizaseme eta 383 emakume; otsailean 671, 295 gizaseme eta 376 emakume; martxoan 636, 273 gizaseme eta 363 emakume; apirilean 577, 251 gizon eta 326 emakume; maiatzean 529, 227 gizon eta 302 emakume; ekainean 506, 211 gizon eta 295 emakume; uztai-

an 522, 211 gizon eta 311 emakume; abuztuan 533, 219 gizon eta 314 emakume, irailan 542, 224 gizon eta 318 emakume; urrian 489, 204 gizon eta 285 emakume; azaroan 493, 220 gizon eta 273 emakume eta abenduan 517, 218 gizon eta 299 emakume.

Eskualdean hartutako langabezi kopuruak Nafarroa osoaren %2,94 da, guzira 17.555 langabetu baitzeuden 2003 urte bukaeran.

Harriztekoa baldin bada ere, lan egoera onak zenbait zerbitzuetako lanpostuak ez betetzea dakar, ostalaritza eta kualifikatutako langilerik ez dute lortzen eta etorkinengana jotzen dute. Baina gizarte zerbitzuetatik jakinarazi dutenez, kontratuak egiteko orduan arazoak daude, lan egiteko erresidentzia-agiria eskatzen baitiote eta haur lortzeko, berriz, lan kontratua.

© 948631076 • BERA

GOYA
arropak • maindireak
Mantak • nordikoak
toallak • kortinak
Alfonbrak
Altzate, 5 • © 948630083 BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERNIZATZEA
ESTALDURA OROKORRIAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 607 406 781

TEL K
K MISET K
ISE
K MISKEI
N HI UZUNK U U, NEU I ET (ISENU) ERIN
Ezt r z h T l- F x 3 15 21

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
saqardotegia jatetxea saqardotegia

ZJ
Zalain
jatebrea
© Zalain S.L. • Tel. 948 63 29 67
Bera - Nafarroa

BERA

Hainbat ikastaro egiteko aukera izanen da datozen hilabeteetan

Antzerkia, ahots teknikak eta altzarien zaharberritzen ikasten ahal da

Amaia eta Ainhoa

Kultur batzordeak datozen hilabeteetarako bi ikastaro antolatu ditu. Horieta bat Lamixine elkarteak antolatzen du Kultur Batzordearen laguntzarekin. Ikastaroaren izena "Irekitzeko Prest" Antzerki Tailerra (hastapena) da eta antzerki mundura hurbildu nahi duen 18 urtetik goitiko edozeini irakita dago. Irakasleak Lamixineko partaideak izanen dira, ikastaroa 3 hizkuntzatan izango delarik. Otsailaren 15ean hasi eta ekaina bitarte emanen da larunbatero 10:30etatik aintzin Kultur Etxean. Matrikula hilabetero 25 eurokoa izanen da izena eman nahi duenak 012 telefonoara deitu beharko du otsailaren 13a bitarte.

Bertze ikastaroa, Abesbatzak eta Lamixine taldeak antolatu dute, Kultur Batzordearen laguntzarekin. Ikastaroaren izena Ahots Teknikak eta Munduko Abestiak da eta otsailaren 27an hasi eta ekainerarte burutuko da. Ortziralerok Isidoro Fagoaga Musika eskolan 19:00etatik 21:00etara izanen da Nekane Lasarte irakaslearen eskutik. Le-



ARTXIBOKOA

Aurten otsailaren 21ean etorriko dira kaldereroak inauteriak iragarri. Kaldereroak 19:00etan Plazatik abiatuko dira, eta Lehian barna lehen geldialdia zahar etxean eginen dute. Eztegarra karrikatik Altzateko Plazara joanen dira, lehenik Errekalde edo Goia parean bertze geldialdi bat eginez. Beti bezala bikote baten ezkontza ospatuko da, baratxuri zopa eta guzi. Entsaioak otsailaren 18an eta 20an eginen dira lamotenean 19:00etan. Animatu zaitzete!

henengo orduan ahots teknikak landuko dira eta bigarrean munduko abestiak ikasiko dituzte ikasleek. Kasu honetan bi hizkuntzatan emanen da ikastaroa eta izena emateko 012ra deitu behar da. 15 pertsonendako plazak dau-

denez, lehenbailehen deitu beharko du ikastaroan parte hartu nahi duenak eta ordaindu beharrekoa 25 euro izanen da.

Uxua Emakume Taldeak, Kultur Batzordearen laguntzarekin altzari konponketa ikastaroa

antolatu du. Otsailaren 14ean hasi eta apirilaren 3a bitarte luzatuko da. Kevin Butcher larunbatero egonen da goizeko 10:00etatik 13:00etara ikastaroa ematen eta parte hartu nahi duenak 60 euroko matrikula ordaindu beharko du.

FLASH

Musika eskolaren inauteriak

Otsailaren 18an Isidoro Fagoaga Musika Eskolak bere inauterietako besta antolatu du. Musika eta mugimendua, piano, solfeo, bibolina eta kitarrako ikasleek parte hartuko dute konpartsan eta txilibitua, danborra eta karrakajoko dituzte. Gainera haize, perkusio, akordeoi eta txistuko ikasleak Berako karriketan barna kalejiran ibiliko dira. Musika eskolatik arratsaldeko 5etan aterako dira, bakoitza bere moztarorekin. Arratsaldeko 6etan moztaror lehiaketa eginen dute eta ondoren bestari akaberaren emanen diote. Entsaioak otsailaren 11an izanen dira Musika Eskolan bertan arratsaldeko 7etan.

Zine-kluba

Berako Zine Klubaren barrenean, datorren otsailaren 5ean, ortzeguneko, Achero Mañasen "Noviembre" filmea ikusi ahal izanen da Kultur Etxean arratsaldeko 20:30etan. Otsailaren 15ean, aldiz, haurrentzako "Unibertsolariak" filmea eskainiko du Kultur Batzordeak, baina kasu honetan arratsaldeko 17:00etan. Sarre-rak, beti bezala, 2 euro.

© 948 63 1462
Altzate I • BERA

KUPOI HAU AURKEZTUTA DESKONTUAK

-%50
OTSAILAREN ISA ARTE

ARRIET 0-18 URTE
haur eta pertsonen arropak ARTEKONTZAT
Legia, 45 • BERA • 948 630550

SAROB
okindegia

SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

LESAKA

Trafiko arazoak moldatzeko autoentzako norabide bakarra izanen da herrigunean

Hiru hilabeteko informazio kanpainaren ondotik isunak jartzen hasiko da Udala

Aitor AROTZENA

Lehendik ere aipatu dugu herriko trafikoa eta, batez ere, aparkatzera-ko orduan eta gaizki aparkatutako autoekin sortzen diren arazoak moldatzeko neurriak aztertzen ari dela Herriko Etxea. Aztertzen ari den gauzen artean, herriguneari norabide bakarra ematea da. Orain arte bezala, Albistur karrikatik herrira sartzen de-

nak Plaza Berria aldera jo beharko du, frontoi aldera alegia. Baina Abrazenea (Euskadiko Kutxa) parean dagoen Stopean ezin izanen da Plaza Zaharra aldera hartu, eskuin aldera bai-zik. Bittirian, Ezpelete-nean, berriz ere eskuin hartu beharko da eta Bittiriako Plazan barna, Rural Kutxaren parean izanen da plazara etortzeko itzulbidea. Behin

plazan, ezin izanen da ezker aldera hartu eta nahitaez Igantzi-Aran-tza alderako norabidea hartu beharko da. Berriz ere Albistur karrika aldera joan nahi duenak Matxinbeltzeneatik ez-ker hartu beharko du. Igantzi aldetik heldu di-renek ezin izanen dute plaza aldera hartu, Albistur aldera baizik. Norabide bakarra eman ez behar, libre gelditzen

den karrilean aparkalekuak moldatu nahi lituzke Udalak ahal den lekuetan. Juan Fermin Mitxelena alkateak aipatu digunez, oraindik ez dago guztiz zehaz-tua nola egingen den, Bittiriako plazan zenbait lorategi hartu beharko baitira bidea zabaltze-ko. «Lehenik behin behi-neko seinaleak jarriko ditugu, ikusteko gure ideia hori arazo haun-

dirik gabe gauzatzen ahal den. Albinteak ere laguntzeko egonen dira». Antolaketa berri honek, etorkizunean erdi-gunea oinezkoentzat izaten lagunduko du, al-katearen erranetan. Udalaren aspaldiko as-moa da hau eta Koski-lla inguruan, Zarandian, Zialdon eta Herriko Etxe-aren ondoan pibote mu-gikorak jarriz lortuko li-tzateke.

INKESTA

Aparkatze arazoak nola moldatzen ahal dira?

Gero eta kezka haundi-agoa sortzen du trafi-koak herrigunean. Hori zergatik gertatzen eta nola moldatzen ahal den galdetu diegu zenbait herritarreri.



Beñardo IGANTZI
Udaltzaina

Herriko karretera ez dago hainbertze trafikorentzat prestatua. Bideak estuak dira leku batzuetan eta jendeak azera gainean uzten du kotxea, bertze kotxeei bide-ua uzteko, baina ez da kon-turitzen oinezkoak kaltetzen dituela eta gainera kotxeak ere ez du tokirik. Denak denda ateraino joan behar izaten dugu erosketak egitera eta hor sortzen da problema! Egutero gertatzen da denda inguruetan eta aste-buruetan ostatuetan.



Ramona LANZ
Postaria

Gaizki ibiltzen gara, baina kulpa handia gurea da. Denok kotxeak ailegatzaren tokian uzten dugu, zarkeriarengatik. Ohituak gaude toki guzietara kotxe-an joateko, ikastolara edo ostatura, eta ez dago leku-rik denentzat. Ikastolaren atean bi aparkaleku daude eta hamar joaten bagara kot-xeein... Kotxeak garajeen egon beharko luke eta kan-pora joan behar dugunean ateri. Oinez gehiago ibiltzea da soluzioa.



Juanito MAZIZIOR
Erretiratua

Aparkatzeko arazoa hagitz gaizki dago hemen. Kotxe-ak azera gainean uzten dituzte ixkin guzitan eta gero ezin da pasatu. Gaizki apar-katuak daude eta kamioia edo autobusa etortzen de-nean ezin du pasatu. Zer-bait pentsatu beharko du-gu! Lehen albintek ordena pixko bat paratzen zuten eta ikusiko dugu orain, badiru-di zerbait egiteko intentzioa dutela. Lehenik abisua eman eta gero multa jartzea ez nu-ke gaizki ikusiko.



Alvaro TELLETXEA
Dendaria

Problema bada eta ez da, hori da problema! Bakoitzak bere lekuan aparkatuko ba-lu bada toki nahikoa, baina ez dugu hori egiten. Denak kotxearekin ibiltzen gara, haurrekin eskolara joateko edo kafea hartzera joateko, kotxea eta kotxea! Halere aparkaleku gehiago behar direla uste dut, baina horiek ere etxetik ahalik eta hurbi-le nahi ditugu! Orain egiten diren etxe berrietan hori es-katzen dute, baina lehen-goetan ez da horrelakorik.

ANNA
Janari dena
Bittiria 41 • 948 637518 • LESAKA

XATURETXEA
Zahar-jatetxea
Tfnoa: 948637027 LESAKA

IRU BIDE
ENERGIA
Tfnoa: 948 637 127
LESAKA

TALLERES BERRIZAUN
GASOLINERA LESAKA
IMANOLA TELLETXEA TITZAYA
Gasola etxera eramaten dugu
Tel. 948 63 74 60 31770 Lesaka (Nafarroa)

ETXALAR

Otsailaren 19an hasiko dira aurtengo Inauteriak, Ortzegun Gizenarekin

Gazte koadrila batek sagardotegira joateko autobusa antolatu du

Joseba eta Nerea

Heldu den ortzegu-
nean hasiko dira Etxal-
larko Inauteriak. Egun
horretan, otsailaren
19an, Ortzegun Gizona
ospatuko da, berexiki
haurrei zuzenduriko
eguna. Goizean goiz ha-
siko dute eguna, koad-
rilatan elkartu eta ka-
rikako etxetan nahiz ba-
serrietan ibiliko dira es-
kean, "xingarra eta
arraultzeak" biltzen.
Bazkaldu eta gero, es-
kola haur guziak mozo-
rroturik plazan bilduko
dira egun honetako ekin-
tzarik garrantzitsuenari
hasiera emateko. Urte-
ro bezala, aurten ere
hainbat dantza eta an-
tzerki prestatu dituzte
gurasoen eta herritarren
aitzinean antzetzeko.
Herriari buelta emanen
diote hainbat geldialdi
eginez, geldi aldi ba-
koitzean ikuskizunen bat
eskainiz. Bukatzeko gu-
raso elkarteak presta-
turiko berendua izanen
dute eta giroa alaitzeko
trikitixa doinuak.



ARGAZKIA: WWW.ETXALAR.ORG

Ortzegun Gizen egunean mozorrotuko dira eskolako haur guziak

Ttipi-Ttapako egoitza nagusia Eskola Zaharretan egonen da urte batzutarako

Udaberrian etortze-
koak dira Ttipi-Ttapa al-
dizkaria eta telebista
gure herrira. Orain arte
Berako Herriko Etxe-
an egon dira, baina etxe
hura barnetik berriro be-
har dutenez, hurrengo

urteotan, egoitza defi-
nitiboa bilatu artean,
Etxalarko Eskola Za-
harretan egoteko bai-
mena eman du Etxa-
larko Udalak. Dagoe-
neko moldatzen hasiak
dira eta Lesakako Sa-

robe da 41.388 euro
kostako den obra egi-
ten ari dena. Zati bat,
14.400 euro, Leader+
programatik hartuko du
Etxalarko Udalak, eta
barneko moble eta tres-
nak Ttipi-Ttaparen gain.

FLASH

Sendotza igandean

Igandean, otsailaren
8an, egingen dute herri-
ko 14 gazte sendotza
sakramentua. Aurten lau
kintako gazteak bilduko
dira, 1984tik 1987ra bi-
tartekoak. Meza nagusi-
aren barrenean egi-
nen da eta Iruñako apez-
pikua etorriko da ospa-
kizun honetarako.

Afaria sagardotegian

Txotx-garaia hasi dela
eta, Etxalarko gazte ko-
adrila batek antolaturik,
sagardotegira joateko
autobusa antolatu da la-
runbat honetarako. 45
bat lagunek eman dute
izena eta Hernaniko
Otsuenea sagardote-
gian afalduko dute. Goi-
zeko ordu tikiak arte lu-
zatuko dute besta.

Iharran ematen dira orain eskulan, ingeles eta trikitixa ikastaroak

Aitzineko ale batean ai-
patu genuen Iharran (le-
hen komisaldegia zen
tokian) obratan ari zire-
la eta urte hasierarako
akautuko zutela. Behin
egokitze lan guziak egin
ondotik, lehen Eskola
Zaharretan izaten ziren
ikastaroak (eskulanak,
ingeleza, trikitixa, pan-
dereta...) orain Iharran
ematen ari dira.

KOXKILA OSTATUA
Berrito mus Koxkilan!
Astero opari ederrekin

Zarandia, 4 - LESAKA

LOREDENDA

Albistur, 39-K
☎ 627542
LESAKA

- bitxikeriak •
- opariak •
- enmarkazioak •

LEGARRA

Prentsa _____	Fax publikoa _____
Liburuak _____	Plastifikazio _____
Tabakoa _____	a _____
Opariak _____	Enkuadernazi _____
Kukuxumusu _____	o _____
kamisetak _____	lanak _____

Egunero bitxia

Tfnoa./Faxa: 948 63 70 30 • Albistur, 9 •

HERRIKO
IZAYU - JATETxea

Albistur, 15 • 948 63 74 00
Txarri - 401 0000

IGANTZI

Heldu den astean izanen dira ñauteak, otsailaren 13 eta 14an

Arkupeak elkartean besta otsailaren 20an izanen da

Oskar TXOPERENA

Tenore honetan egiten ditu Arkupeak Elkarteak inguruko herri guztietan urteko herriko bazkideen bestak. Otsailaren 20an, ortziraletan, eginen da igantzikoa. Ohiturari jarraituz meza izanen da eguerdi aldera eta ondotik bazkaria eta dantzaldia Herriko Etxeko jatetxean. Besta honetara joan nahi duenak otsailaren 15erako eman beharko dio izena elkarte herriko ordezkariari.

Biltoki Elkarte

Heldu den larunbatean jokatu dira Biltoki Elkartean urtero negu partean jokatzeko diren mus eta partxis txapelketen finalerdiak eta finalak. Abenduan hasitakoari emanen diote akabila, erran bezala, irabazleak erabakita ilunabarrean eta afora eta musikarekin gero. Musean dagoeneko sailkatuak Faustino Taberna eta Martxel Loiarde, Antonio Zarra eta Iguz-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Pala eta eskuzko finalak bat bertzearen ondotik suertatu dira eta emaitzak politak izan direnez, aipatu egin behar. Azkenekoak Bortzirietako III. Banakako Txapelketakoak izan dira, ilbeltzaren 24an Beran jokatu zirenak. Bortz igantziar izan genituen finaleran eta bi txapel etorri ziren herrira: Unai Telletxeak garaipena lortu zuen ttikien mailan Jon Olaizola lesakarrari irabaziz; Iker Rojok galdu egin zuen berea Josu Sanjurjoren aurka, partida polita jokatu ondotik; Aitor Beginok ere ez zuen Jon Jorajuria arantzarraren aurka irabazten izan; eta azkenik, Imanol Goienetxe eta Beñat Txoperenaren arteko partidari Imanolek aisa lortu zuen garaipena, bere mailako bertze pilotariak baino koxka bat goitiago dagoela erakutsiz.

kiagirre eta Joselu Sivera eta Joxe Ramon Etxeberria dira. Partisean, berriz, Axun Iribarren eta Pili Iturbidek, Kontxita Iturbide eta Anuntxi Txoperenak eta

Xeli Etxeberria eta Gurutxe Iribarrenek irabazi dute orain arte finalerdiarako lekua. Lagaarrenak joan den larunbatean jokatu beharreko errepestatik ziren

ateratzekoak. 2004ko batzar nagusia, berriz, hilabete honen azken larunbatean eginen da. Hurrengoan aipatuko ditugu gaiak eta xehetasunak.

FLASH



Zuhaitzaren Eguna

Landaketak egiteko garaiezin aproposagoa dela probetxatuz, otsailaren 10ean, eguerdi ondoran, urteroko landaketa egitera bilduko dira Igantziko Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoak. Eguraldiak lagunduko ez balu badiutuzte bertze zenbait egun ere aukeratuak, baina hori da hasera bateko hitzordua. Lehengo urteetako leku bereztuan paratuko dituzte 60 zuhaitz berriak, Zio-bi aldean, Iruiturrieta gainean.



Ñauteak otsailaren 13 eta 14n

Gain-gainean ditugu aurtengo ñauteak ere. Heldu den asteko ortziral eta larunbatean, otsailaren 13 eta 14an, egin gogo dituzte gazteek. Honezkerok eskian ibili behar duten gazteen zerrendak eginak izanen dituzte. Aitzineko urteetan hogeita hamarretik goitiko moztarrotaldea ibili da eskian eta aurten ez dira seguras-ki guttiago ibiliko.

ANSONEA jatetxea

Eguneroko menua eta karta
Asteburu eta jai egunetan menu berezia

Foruen Plaza 1 • ☎ 948 631155 • BERA

Alberto RETEGI
abokatua

Altzate 17 • BERA • ☎ 948 630 763

ATM S.A.

AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.

- Txapa mozketak eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
- Enbalaketa elementuak eta flejeak.
- Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
- Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)

Igantzioko Bentak • ☎ 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

ARANTZA

Iñauteetako aste hondar luzea prestatu dute mozorro zuriek

Ortzegunetik larunbata bitarte, denentzako egitaraua izanen da

Nerea ALTZURI

Aintzinako herriko kronikan aurreratzen genizuen ailegatu da. Iñautik larunbata bitartean izanen dira. Hamabortz gaztek guziaz lotu dute denentzako asteburu ederra pasatzeko iñauteen aitzakian. Mozorro zuria dira herriko iñauteetako pertsonaia. Mozorro haundiak eta tikiak etxe etxe "puxka-puxka" ibiliko dira ohiturari jarraiki. Mozorro haundiak errate baterako, ortzeguneko herriko lau auzoak eginen dituzte soinu-lariekin lagunduta eta alaituta; eta ortzilin herri kaxkoan ibiliko dira eskuan. Herriko mozorro gaztetxoek ere, musikaren laguntzaz burutuko dute ohiko ibilaldia eta ortzeguneko, alde aurretik, mozorro zaha-

rrenen bisita gustora hartuko dute eskolan.

Gainerakoan, ohiko baserrietan, bazkal otorduak egiteaz gain, herriko jatetxeetan txandaka egiten dituzte gosari, bazkari eta afari pokaduak mozorro gazteek. Emakumeek ere, ortzeguneko, ohiko afaria eta besta izan baidute. Aterpen txanda izan da oraingoan, urteko urtera jatetxeek tokatutako arduraren hariz baitute txandakatu. Ortziral arratsean, Mikel Salaberriren eskutik dantzaldia izanen da herriko etxeko gorapean.

Larunbatean, berriz, herriko tikiak euren mozorroak erakutsiko dituzte arratsaldean. Mezaren ondotik, herri kirol saio berexia izanen da frontoian mozorro



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Txapelketa ederra egin dute herriko pilotariek, tartean, bi txapel lortuz.

gazteen eskutik. Ondotik, iaz bezala, bertso afaria izanen da Aterpen eta Jalisko Band taldeak prest izanen da gorapean gaua gehiago girtzeko. Beraz, mozorrotuta iñauteetara etortzeko gonbidapena egitea bertzerik ez zaigudituzten.

Bortzirietako pilota txapelketan bi zapel

Herriko pilotari gaztetxoak txapelketa ezberdinetan parte hartzen dira edo parte hartzen ari dira. Zizurreko txapelketa, Belateko norgehiagokoa, Euskadiko pilota liga... eta berriki

bukatu da Bortzirietako banakako III. txapelketa. Joan den ilbeltzaren 24an Beran finaleko norgehiagokak jokatu ziren. Pilotari talde bat nor edo nor aritu da buruz buruko txapelketan.

Azkenean, finalerako sailkapenean, lau herriko pilotarik hiru partidu jokatu dituzte, bi txapel etxera ekarri direlarik. Alebinen mailan, Jon Jorajuriak 16 eta 9 irabazi zion Aitor Begino igantziarrari. Eneko Ortdoki eta Joseba Mada-riaga, kadete mailako A taldeko aranztarrek elkarren kontra jokatu zuten partiduan, 16 eta 18 ko emaitza izan zen Josebaren alde. Josu La-

rretxeak ez zuen suertirik izan finaleko partiduan, Etxalarko Altxatako lurgi Berruetaren kontra 18 eta 4 galdu baitzuen partidua.

Edozein modutan ere, bertze aldi batez, partidu politikak ikusi dira txapelketan zehar. Bortzirietako herri bakoitzari bina txapel egokitu zaigu. Pilotan jarraitzeko, pilotarekiko zaletasunak indarrean jarraitzeko, horrelako txapelketak antolatzen segitzeko eta herri desberdinetako lagunak egiteko baliagarria izan daitekeen zaporea utzi du ekintza honek ere.

Zorionak partehartzaile eta antolatzaileei.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteleheneetik ortziralerara, 9:00etatik 15:00etara
• Asteazkenean 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 71 • Tfnoa: 948 63 70 50
amaia@artekari.com

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 948 133328 Faxes: 948 133713
Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA
patxi@artekari.com

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi-langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitopenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

«USOA»

NEKAZARI KOOPERATIBA

Ganaduarentzat
pentsurik egokiena
Tfnoa: 948635214

ETXALAR

948 63 11 88

JOSE I. GONZALEZ ENGUITA

PINTURA LANAK OROKORREAN

666 235 466

948 630 683

Bidasoa 49 - 1.ezk • 31780 BERA

DONEZTEBE

Alkate eta zinegotzien soldatak eta ordainak onartu dituzte

EAREN aldeko botuekin eta PNVren kontrakoekin

ttipi-ttapa

Udal hautetsiek ple-noetara joateagatik eta bertze lanengatik kobratu beharrekoak onartu ziren batzarrean, Eusko Alkartasunaren aldeko botuekin eta EAJ-PNVren kontrakoekin. Alkateak, astean hogeitortu egon beharko du guttienez udal egoitzetan eta horren truke, urtean 13.560 euroko soldata gordina izanen du, hamabi hilabeteko 1.130 euroko soldata gordinen banatuta. Kopuru horri, legeak agintzen dituen zerga, aseguru sozialeko kuota eta bertzelakoak kendu beharko zaizkio. Bertze aldetik, dedikazio partzialik ez duten zinegotziek, udal batzar bakoitzera agertzeagatik 72 euro kobratuko dituzte eta informazio batzordeetara joateagatik, 36 euro bilera bakoitzeko. Bere kargua betetzen gertatzen ahal zaizkien gastuengatik kalteordaina jasotzeko



ARGAZKIA: EDURNE ZUBIETA

Trafiko araudi berria ezartzeko lehen urratsak ematen ari dira.

eskubidea izanen dute zinegotziek, behar bezala justifikatuz gero.

Erran bezala, Eusko Alkartasunako zinegotziek honen alde bozkatu zuten eta PNVkoek kontra. Talde bakoitzeko launa zinegotzi zeudenez, azkenean alkatearen kalitate botuak erabaki zuen afera. Alfredo Zugarramurdi zinegotziak, EAJ-PNVren

izenean jakinarazi zuenez, alkatearen soldata egokia iruditzen zaie, beti ere bere orduak udal bulegoak irekiak dauden bitartean betetzen baldin badira eta ez arratsaldez, bulegoak itxiak daudenean. Gainera, arratsaldeko ordutegia ezartzekotan, alkateak ordutegi horretaz kanpo egiten diren hainbat bilertara ezin izanen

luke joan. Bertze bilertara joateagatik emandako diru-kopuruekin ere ados zeuden PNVko zinegotziak, eta diru guttiago izatea ere onartuko luketeela erran zuten. Bere aldetik Alkateak aipatu zuenez, proposatutakoak baino ordu gehiago eskaintzen dizkio karguari eta orain arte, deitu duten bilera guzietara joan da.

FLASH

Gazteluko bidea

Gazteluko bidea moldatzeko intentzioa du Udalak. Horretarako, obrak kaltetzen dituen jabeekin bildu da eta laister lanak emanen ditu prentsan publizitatea jarriz eta prozedura negoziatuaren bitartez, dirulaguntza ez gartzeko. Aitzinetik, ordea, bidearen jabeekin erabilera publikorako bidea uzteko idatzia sinatu beharko du Udalak.

Barne-Barnetik dokumentala

Galdare enpresak herriari buruzko «Barne-barnetik» bideo proiektu dokumentala egiteko proposamena aurkeztu dio Udalari. 500 kopien truke Udalak 4.200 euro eta BEZa ordaindu beharko luke. Bertze aldetik, bertze enpresa batek Doneztebe eta inguruko herriari buruzko hiru orriko egiteko proposamena ere hartu du Herriko Etxeak. Herriaren interesendako zein den proposamenik egokiena aztertuko du orain Udalak.

Lehen aldaketak trafikoan

Herri sarreretan, oinezkoentzat pasabideak al-tueran jarri dituzte, trafiko araudi berria ezartzeko lehen urratsa.

TOLDOAK SALMENTA-KONPONKETA-ALOKAIRUA-ERROTULAZIOA
MOSKITERAK SALMENTA
PERTSIANAK MOTORIZATUAK, MOSKITERAK, VENECIANAK, etabar...

PIKABEA

pinturak

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 948 630240 - 948 631495 • BERA

SUNBILLA

Hamabi karroza eder karrikaratu ziren iñauterietako igandean

Ortziral eta larunbat gauetan ere giro ederra izan zen

ttipi-ttapa


Aspaldiko urteetako ohitura mantentzeko, igandean egindako karroza desfile ikusgarriarekin akautu ziren iñauterietako Sunbillan. Aitzinetik, ortziraletan emakumeen eta gazteen afariekin hasi ziren ospakizunak. Larunbatean eskean ibili ziren gazteak etxez etxe. Dena den, iganderako indarrak gorde eta hamabi karroza atera ziren desfilean. XIX. mendeko txirindulariak, telebista iragarkietako behiak, mamuta ehizatua zuten arbaso zaharrak, Sunbil Janeiroko brasildarrak, Mojinós Escozios taldearen kontzertua, Txinako dragoi eta mandarinak, monjak... denetik izan zen Sunbillan. Baina ikusi ez ezik, salda, taloak, gazta, gaztainak, tortilla eta ardoa dastatzeko modua ere izan zuten igandean hurbildu zirenek, Ulibeltzak elkarteak prestatutako karrozari esker.



EUSKARA

Irakaskuntzari buruzko solasaldiak Lesakan eta Beran

«Euskarazko irakaskuntza: Abantailak eta egungo egoera» izenburupean bi solasaldi eskainiko ditu Eduardo Aldasoro Lezea hezkuntzako goi mailako teknikariak Beran eta Lesakan. Berako solasaldia otsailaren 4an, asteazkena, 19:00etan eginen da euskaraz la motenean eta Lesakakoa otsailaren 11n, 19:00etan Herriko Etxeko Pleno aretoan, gazteleraz. Solasaldiaren ondotik, galderi erantzunen die.



PAGOLA TXISTORRAREN IZENA

© 948 630 054
Altzateko Plaza, 2
BERA

616 513 497
Pititi
ESKABAZIOAK
C/Azuelu
31700 DONEZTEBE (NAFARRA)



Tel.: 948 456 080
Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

ITUREN

Euri langarrari aurre eginez ateri ziren joaldunak iñaute astelehenean

Kanpotik hainbat jende etorri zen ohiko harat-honatak ikustera

Iban ISASI

Iñaute astelehena izan zen Iturengo iñauteen egun handia, Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunak elkartzen dituen lehen eguna baita. Iturenen, goizean gosaldun ondotik, berehala hasten dira janzten joaldunak. Hedabide eta jende aunitz biltzen da joaldunak Herriko Etxeko ganbaran nola janzten diren ikustera. Ardi larra, joareak, isopua eta ttunturua osatzen dute joaldunen jantzia, argazkiak ateratzeko osagarri politak.

Plazan, berriz, kanpotik etorritako autobus aunitz ikusten ahal da, eskoletako haurrekin beteak batez ere. Poliki poliki Ituren herri handia bihurtzen hasten da.

Joaldunek herriari itzulia emanez puxkak biltzen hasten dira. Ondotik Lasaga aldera hartzen dute. Auzo honetan indarberitu eta herri aldera hartzen dute berriz ere. Ondotik, Zubietatik eta Aurtiztik etorritako joaldunekin elkartzen dira. Bien bitartean, herrian lehenengo mozorroak ikusten hasten dira. Joaldunak elkartu ondotik, elkarrekin hurbiltzen dira Iturenera, mozorroen eta jendetzaren artean bidea eginez. Plazan, joaldunen pulunpa soinuak mozorroen bestarekin nahasten dira, ikusleen gozamenerako.



PERTSONAIA

Florencio LEGAZKUE

45 urteren ondotik berriz ere iñauterietan

Duela 68 urte jaio zen Iturengo Lopetzenean Florencio Legazkue Biddart. 23 urte zituela, herria utzi eta Kalifornia aldera jo zuen, bertze lau anaiek egin zuten bidea segituz. 45 urte joan dira orduz geroztik eta tarteke Iturenera itzuli baldin bada ere, sekulan ere ez da iñauterietan suertatu. Bera ere joaldun izan zen gazte denboran eta aldaketaren bat somatu du joaldunen jantzia. «Lehen aharearekin egiten genuen bizkarlarra, ardiak tikiak izaten zirelako. Orain ardiek hobeki jaten dute, bistan da, ardilarru ederrekin baitabilta joaldunak». Lehen, herriarren aitzinean bakarrik jotzen zituzten joareak eta orain harritua gelditu da kanpotik etortzen den jende guziarekin: «Lehen fotografo bakarra etortzen zen, Iglesias, eta geroxeago Agesta Doneztebetik, baina ez zen oraingo ikusmin hau». Herria ere dextente aldatu dela iruditzen zaio Florenciori, hobera: «Duela 45 urte utzi nuen herriarekin ez du itxura haundirik, orain hobe bizi dira. Lehen Ameriketara zegoena orain honat ailegatu da». Berriki erretiratu da eta, emaztearekin batera, Nafarroan bortz hilabete pasatzeko intentzioarekin etorri da. Hasteko, iñauteriak!

ola
SAGARDOTEGIA

• 250 lagun eserita
• Klimatizatua

102 Meaka auzoa
20304 IRUN
Tel.: 943 623 130

**MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA**

ONDORIOETATIK INDARTZEKO:

- Diabetia
- Asma
- Buruko mina
- Oinen izerdia
- Larri azaleko alergia
- Zizareak
- Prostata, etab...

IKUSMENAREN BERRESKURATZEA

- Miopia
- Bista alfertua
- Estrabismoa
- Begi lausoak-kataratak

GIHARRE ARAZOAK

- Bixkortzea
- Artritia, erreuma
- Artrosia, Lunbalgia
- Bihurdurak, etab...

KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsalde 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4 IRUN

ZUBIETA

Iñaute asteartean mozorro eta joare besta egin zen Zubietan

Eguraldi kaxkarrari aurre egin zioten

ttipi-ttapa

Astelehena ittundarren egun handia izaten den bezalaxe, astearte izaten da zubietarra. Aurtengoan eguraldiak ez zuen baxteregia lagundu. Astearte goizeko martxa normalean baino beranduxerago hasi zuten, 50 lagunek egin zuten gosariederrarekin. Ondoren, batzuk joareak eta bertzeek mozorroak jantzen hasi ziren. Mozo-

roek lana lehenago akitzen dutenez, hauek plaza bazterrak girotzeaz arduratu ziren. Aurtengoan ere denetik ikusi zen: moto zaharrak, larruarekin jantzitako nozorroak eta baita hainbat karroza ere.

Eguerdiko biak hurbil zirenean atera ziren Zubietako 18 joaldunak bere joareak dantzan jartzera, plazan espe-roan zeuden ehundaka pertsonen aintzinean.



Argazkia: Mena

Beti bezala, mozorroen zakarkariek eta «astakeriek» zubietarren eta iñauteria ikustera etorritakoen gozamen eta harridura sortu zuten. Eguraldiak ez zuen lagundu, baina giroa bero mantentzen lagundu zuten.

Herriari zenbait itzulixka eman ondotik, errota aldera joan ziren, han esperatzen baitiete Ituren eta Aurtizko joaldunei. Denak elkartutakoan herrira itzuli ziren.



Argazkia: Mena

Zubietako joaldunak errota aldera joaten dira, Aurtiz eta Iturendik heldu direnekin elkartzeko.



Estazio karrika 13 (bi zubien artean) • HENDAIA
Tel.: 00.33.0559.48.37.58



- Mozorroen alokairu eta salmenta
- Baserritarren jantzien aukera zabala
- Mozorro guzietako osagarriak
- Makilak profesionalak
- Piroteknia artikulua (patate, su-ziriak...)

Prezio ezin hobeak



BEINTZAKO OSTATUA

© 948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz.

Termita eta Polillen kontrako tratamendua

BERA DESINFECTIOES

© 948630155
BERA

DONAMARIA

Ehun urte bete ditu Perotxeneako Fulgencia Irazokik

19 iloba eta 22 birloba eman dizkiote bere sei seme-alabek

ttipi-ttapa

Beran sortu eta Donamarian bizi den Fulgencia Irazoki Irazokik ehun urte bete zituen ilbeltzaren 16an. Famili giroan ospatu zuen mendeurrena, beraiekin bazkaria eta berendua egin baitzituen. Izan ere, sei seme-alaba (horietatik lau bizi dira), 19 iloba eta 22 birloba ditu Fulgenciak eta bi otordutan banatu behar izan ziren, denak *amatxi xahar*arekin egon nahi baitzuten egun berezi horretan. Horretaz gain, Arkupeak jubilatuen elkarteak lore-xorta eta oroigarria ere eman zizkion, mendeurrena zoriontzeko.

Kaule auzoan sortu eta gazte denbora Beran eman bazuen ere, 1926. urtean Igurin auzoko Perotxeneako Nicolas Lasagarekin ezkondu donamariatu zen Fulgencia Irazoki.

Leon semearekin esposatua dagoen Juana Mari Telletxea Otxantorena errainak zaintzen du orain etxean Fulgencia. Solasteko zailtasunak baldin baditu ere, osasun egoera onean dago. «*Ez du pastila bakar bat ere hartu beharrik, apetitu ona du eta oinez ibiltzen da. Solasteko orduan ditu zailtasunik handienak, zerbait erran nahi duela baidakigu baina ezin du,*



pena da!» dio errainak. Erran bezala, jaterako orduan ez du arazorik Fulgenciak, «*berdin da barazkiak ematea edo odolkia ematea, dena gustatzen zaio. Kafesnerako ere zaletasun haundia du.*»

Irratia aditzea edo telebista ikustea baino Fulgenciak nahiago du gantxilloa egitea. Bere familian berak egindako hainbat galtzerdi, haurrendako patuko eta eskularru jantzi dituzte eta berak jositako tapeta eta puntillak ere badiuzte etxeetan.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Fulgencia Irazoki ageri da goiko argazkian, senide batzuekin. Behegian, Arkupeak elkarteak bere ehungarren urtebetetzea dela eta emandako lore-sortarekin ageri da.

Aste hondar honetan ospatuko dira iñauteriak

Herriko Ostatu otorduak eta puska biltzea izanen dira egitarauan

Aste hondar honetan, otsailaren 6tik 8ra ospatuko dira iñauteriak Donamarian. Ortziralean, afaria izanen dute Herriko Ostatuan. Lerrunbatean leku berean gosalduta eta etxez etxe ibiliko dira gazteak puxka biltzen. Aurten karroza eta guzi ibiliko di-

rela iragarri dute. Herriko Ostatuan bazkaldu eta arratsaldean ere etxez etxe ibiliko dira, Mikel Salaberri akordio-lariarekin. Ohitura ezgaltzeko Herriko Ostatuan afalduta dute. Igandeko bazkaria ere han egingen dute. Arratsaldean txokolatada izanen da.



Gazteek puxka biltzea egingen dute larunbatean etxez etxe.

Artxibokoa

LEITZA



Ihoteak espezial igaro dira

Mikel ILLARREGI

Busti xamarra giroa, hotza ere ez zen falta baina espezial igaro ditugu ihoteak lagunen arteko giro goxoan. Larunbatean hasi eta asteazkeneko goiz arte iraun dute. Ikusten duzun bezala ordu batzuk programaziotik kanpo izan dira eta gainera elurrarekin amaitu.

Kiroldegia hondatzen

Bi urte ez dira herriko kiroldegian inaugurazio ekitaldia egin zela eta dagoeneko moldatzeko bidean jarri da. Hauetako akats batzuk hasieratik omen daude eta besteak pixkana agertzen hasi dira.

2004ko urtarrilaren 13an Udalak obraren zuzendaritza, eraikuntza egin duen enpresarekin eta kudeaketa ematen duen Hydra enpresarekin bilera egin zuen eta erreforma batzuk proposatu zituen udalaren zerbitzu teknikoak egindako txostenean oinarrituta: ormigoizko hormen pitzadurak saneatu eta ixtea, barruan nahiz kanpoan. Arotzeria me-

talikoan ur-sartzea dela eta, leiho guztiak desmontatu, zigilatu eta margotzea. Urak hustutzeko sistema jarri. Kiroldegiko pistak, muskulazio-gelan eta pilotaleku txikian ur-sartzeak eta teilatua konpondu. Squash-eko frontiseko estalduran izan diren hondaketak konpondu eta margotzea. Balio anitzeko eta squash geletako zola berriz jartzea, hezetasunak sortzen dituen arazoak saihestuz. Eta, nahiz eta bilerako txostenean agertzen ez den, ur beltzen isurbideak hobetu, hauek askotan trabatu egiten baitira.

Udalaren ustez, aurkitu diren akatsen erantzunkizuna obraren zuzendaritza eta eraikuntza egin duen enpresarena da eta horregatik konponketa egiteko proposamena bi aldeen artean adostu behar dute. Hobekuntza lanak hasiteko otsailaren 15a jarri dute epea eta martxoaren 31rako bukatu behar dira. Hau horrela ez bada, udala ezarritako abala kobratu eta erabiliko luke.



ARGAZKIAK: MIKEL ILLARREGI

EHNaren aldeko kanpaina

Duela hilebete egin zen moduan, herriko talde batek Euskal Herriko Nazioartean Agiria tramitzatzeko deialdia eginen du. Honetarako azken aldian egin zuten batzuk argazkia atera zuten herritar guztiak hurrengo deialdira gonbidatuz.

Bitartean kiroldegian funtzionamendua kudeatzen duen Hydra enpresa kexu da, behar bezalako funtzionamendua ezin delako garatu eta batzuetan hainbat saio bertan behera utzi behar izan ditu baldintza egokiak gertatzen ez direlako.

Mendibil taldeko balantzea

Ilbeltzaren hirugarren asteburuan, Mendibil mendi taldeak ohiko urteko Batzar Nagusia egin zuen eta nahiz eta bazkide gutxi agertu 2003ko balantze ekonomikoa eta aurtengo ekintzen plana onartu zen. Balantze ekonomikoan aipatu behar da 1.468 euroko irteerak eta 1.473ko sarrerak izan zirela, kitto ia ia. Hala ere, aurtun 2.190 euroko aldearekin hasi dute urtea. Kaleratu duten 2004ko egutegian ikus daitezke hileroko antolatutako dituzten irteerak. Hauek hurbildu ahala aipatuko baditugu ere, esan, otsailean mendi astea, umeentzat Erakurrira irteera eta Urbasa-Lizarragako mendatera ibi-



Bi urte bete gabe, hondatzen ari da kiroldegia.



«Maxurrena Herrintzat» lelopean, herriko elkarte gehienek ekintzaren bat antolatzen dute hileroko. Hemen Mendi taldeak antolatu zuena Ulizar mendira eginiko irteeran. Elurra izan zen nagusi baina ondoren Berastegin bapotea izan zuten banabarrak eta oilaskoa... Hurrengo ekimena, Kultur taldearen esku izan da eta igaro berria dugun Santa Ageda bezperan egin zen, bertsoak kantatuz.

laldia antolatu dutela.

Horretaz gain, urtarrean hasita ekaina bitartean, hilean behin Pirineotara irteerak antolatutako mendiko es-

kia praktikatzeko asmoz. Honetarako, interesaturik dagoenak hileko bigarren ostegunean agertu behar du 19:00etan Aurreran.

GOIZUETA

Aurrerapausoak zaborren birziklapenean

Sukaldeko olioia eta pilak jasotzen hasi dira eta laster paratuko dituzte kontenedoreak paperarentzat

Esteban AROTZENA

Pixkanaka baldin bada ere, gure herrira ailegatzeko ari da zaborrak birziklatzeko aukera. Mankomunitate indartsu bateko partaide ez izateak asko mugatzen omen du behar bezalako medioak edukitzea, baina hala ere, gero birziklatuko diren hainbat zabor jasotzen hasi dira dagoeneko, eta besteren bat edo beste ere jasoko omen da hurrengo hilabeteetan.

Orain dela aste batzuk pilen bi kontenedore paratu zituen udalak, bat Herriko Etxeko

atarian eta bestea Infanta aurrean. Orain, sukaldeko olioaren bilketa antolatu da eta ilbeltzaren 30ean egin zen lehenengo aldiz. Hurrengoa martxoaren 26an izanen da, biltzaileak bi hilabetetik behin (hilabetearen azkeneko ostiralean) etorriko baitira herrira goizeko 9etatik 13etara. Edozein ontzitan gorde liteke etxean gero jasoko duten olio erabili hori. Bi aipamen gogoan hartzeko; autoen oliorik ez dutela hartuko, eta oparitxo bat (olio birziklatuarekin egindako xaboi pastilla) emanen diotela olio za-



ARTXIBOKOA

Betiko zabor bilketari beste batzuk gehitzen ari zaizkio herrian: pilak, sukaldeko olioak, laster papera...

harra eramaten duenari.

Olioia arraskatik botatzeak ingurumenari kalte larriak sortzen omen dizkio. Jasotzen denarekin, berriz, gasolinak baino kalte gutxiago eragiten duen biodiesela egiten dute. Gai honekin bukatzeko esan, papera eta kartoiak jasotzeko erabiliko diren kontenedoreak ere egun batetik bestera paratuko direla.

Kaldereroak ostiral honetan

Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoen eskutik iñote aurreko ostiraletan etorri ohi den Kaldereroen taldeak eguna aldatu du aurten eta ostiral honetan bertan (otsailak 6) herriratu da. Otsailaren 16tik 21era eskolako neska mutiko asko elurretara joan behar izanak eraman ditu antolatzaileak eguna aldatzera.

Herriko Etxeko obregatik subentzioa

Herriko Etxeko obrak aspaldixko eginak bada ere, egunotan onartu du Nafarroako Gobernua subentzioa ordaintzea. Denetara 164.024 euro hartuko ditu herriak (27 milioi Pta. pasatuak), obra guztia kostatzen zenaren %70a.

Denetara 232.626 euro kostatzen obra.

ARESO

Peoi lana betetzeko lehiaketa deialdia egin du Udalak

Sei hilabeteko probaren ondotik, egun erdirako lanpostu finkoa izanen litzateke

Juana Mari SAIZAR

Egun erdirako zerbitzu askotako langile edo peoi lana betetzeko lehiaketa-epitazio deialdia egin du Udalak. Lehenik sei hilabeteko proba egingen da eta gero, langile finkoa izanen da, D mailakoa. Informazio gehiago Udaletxean.

Etxez etxeko zerbitzua

Etxez etxeko zerbitzuen ordezkapenak egiteko zerrendetarako jende berria behar da. Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak oposaketa egitea onartu zuen. Oposaketa hau egin baino lehen

ikastaroa egin nahi da Leitzan etxez etxeko zerbitzuari buruz. Informazio gehiago 948 510840 telefonoan.

Ingelera klaseak

Guraso Elkarteak antolatutako ingelera klaseak diruz laguntzeko onartu du Udalak.



Artxibokoa

Ohiko mozorroekin batera, gure zaharrek ezagutu zuten atsoguratuak berreskuratu dira aurten.

Iñauterietan atsoguratuak

Ilbeltzaren azken asteburuan ospatzekoak ziren iñauteriak eta herriko umeek aspaldiko

ohitura berreskuratu zuten: aurtengo mozorroa aspaldidanik gure zaharrek atsoguratu ziren moduan jantzi behar zuten.

ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

Domitenekobordako teilatua erre zuen suak urtarrilaren 16an

Zugarramurdiko inauterietan aldatetako izanen dira: larunbatarekin hasiko dira eta egun horretan mendia, Madaria eta Alkerdi kurrituko dira. Biharamun goizean herriaren eginen da eskea eta arratsaldean bertan. Astelehena eta asteartean, usaia xaharra hautsiz, ez da deus izanen... denborak aldatzen ari dira.



Margari eta Koro

Ez ginuen Zugarramurdin urtea ongi hasi: urtarrilaren lehenbiziko egunetan, apeza sakristian zegoelarik norbaite elizan sartu eta "zepiloa" n zegoen dirua ebatsi zuen. Ondoko egunetan, 16an aintzen, Domiteneko bordak su hartu zuen, zorionez barnean ez zegoen deus bainan teilatua erdia erre zen.

Omenaldia Asuncion Espelosineri

Urtarrilaren 22an zonalde huntako Arkupeak elkarteko bazkideek egin zuten bestan (Arizkun, Erratzu, Azpilkueta, Urdazubi eta Zugarramurdi) 180 lagun bildu ziren, eta bertan hamahiru urtez Urdazubiko delegatua izana den Asunción Espelosineri omenaldi-despedida bat egin zioten. Asuncioneke lan hau utzi du eta orain Urdazubiko delegatua Tere Bidart izanen da.

Elikagaien bilketa

Aintzineko urtetako arrakasta ikusita, aurtengo ere elikagaien bilketa egiten da bi herrietako elizetan. Otsailako hilabete guztian eliza bakoitzean kutxa bat egonen da, jendeak ematen dituen elikagaiak biltzeko. Zerbaite nahi izanez gero, Urdazubiko arduraduna Milagros Dihasarri da, eta Zugarramurdikoa Kruzis Apeztegia.



> H s l n k t n
l n u k t u t r r k

nts l n k

nk m s t u u n r r r z u n n u u l k , u r l
K u r x k e u z z t z k e u l l n f k z n n s t k l k
z u t n n t s l n k k k n z n z e z u

- 5 l n u e r n , e r r h e r e r k l z n r n k
- u r e k - f s k l z r k k .
- E r r n t e r t s u n n t s r e r n k n - r n
- l h n z k s u t n n z n n u n .
- M u k r t s u n l n t e k e z y n k s t u r k .
- M l u t s u n k r n t n .

Z e z u r l k u t x e r t h s z z t a l n u k t u r r k
l n k .



r r r r z n n u z u r
l n n u r n 31 n l l n
k n r z l n u z u

www.367tv.com

Q n r + Q U n n t F + Q s M x t + Q T r s M x t 75 + Q C u t r n t V r l

> Zur t r k z u n u r l n t r u z u

NAFARRAK
RUR L KUTXA

BAZTAN

Gizakunde Eguna ospatuko dute Arizkun eta Erratzun otsailaren 7an

Jo ala jo eta Erratzuko Kultur Elkarteek antolatua

ttipi-ttapa

Azken urteotan berreskuratutako ohiturari eutsiz, Gizakunde Eguna ospatuko dute Erratzun larunbat honetan, otsailaren 7an. Jo ala Jo eta Erratzuko Kultur Elkarteek antolatutako egitaraua 17:00etan hasiko da,

Arizkongo elkartean eginen den merendua eta mozorro elkartzearekin. 18:30etan Mozorro ibilaldia egingen da Arizkundik Erratzurat. Karriketan barna puxkebiltzea, mamurru uxatzea, ikara... Bizkargain fanfarrea, Txistulariak, ioaldunak... 20:00etan


Puxkebiltzea Erratzuko karriketan barna. 22:00etan Afaria eta Jantzilo epaitzea Elkartean eta afalondoan Jantzilo erretzea herriko plazan. Akitzeko orro eta irri Erratzun barna.

Afarirako txartelak Erratzuko ZubiPuntan eskuragarri daude.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Joan den urteko apirilaren 14an inauguratu zutenetik hainbat bisitari pasatu dira Elizondoko Jorge Oteiza Museo Etnografikotik (hilabetean mila inguru). Horien artean jende famatua ere bada, argazkian Ana Mari Marin pintore elizondarrarekin ageri den Paloma San Basilioa kantaria bezala. Azpilkuetan etxea dauka kantari madrildarrak eta hainbat denbora ematen du ballean, bertan erroldatua baitago.



Gizakunde eguneko kartela

Arizkongo Herri Eskola moldatu eta haunditu dute

Arizkongo Herri Eskolak instalazio berriak ditu. Goitiko solairua ez zen deustarako erabiltzen eta orai ikasgela berri bat, erabilera aunitzeko gela, komunak eta biltegia egin dira. Lehendabiziko solairuan, maisuaren etxebizitza zegoen lekuan, ikasgela, liburutegia eta ikusentzuneke gela, sukalde-jangela, biltegia eta komuna egin di-

ra. Haunditze lanak Leharozko Arakan eraldatu, 45.939,55 euroko aurrekontuarekin. Lanak gan den urteko urrian hasi ziren eta, azken ukittuen faltan, akituxeak daude. Arizkongo Herri Eskolan 26 ikasle ari dira, 10 Haur Hezkuntzan eta 16 Lehen Hezkuntzan eta orai arte estu xamar ibiltzen ziren beheitiko solairuan.

ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte
ELIZONDO

© 948 581807 • 948 581853

ZALDUBI

Martin Lizasoain Adansa

- SUKALDE MOBLEAK
- BAINU MOBLEAK
- MANPARAK

Zaldubi Poligonoa • © 948 580 562 IRURITA

BAZTAN



ARGAZKIA: ONDIKOL

Erratzuko 66 emakume elkartu ziren San Anton eguna ospatzeko. Goizean meza aditu, hameketakoa Zubipuntan hartu eta Ordokiko Uxoan bazkaldu zuten. Bazkalondoa alaitzen, Francisco Santxotena akordeolari iruritarra izan zuten. Duela hamabortz urte berreskuratutako ohitura mantentzen dute.

Iruritako hamasei baserri bi aldiz isolatuak gelditu dira aurten

Artesiagako zentralaren kanalak sortutako isuriek lur eroria eragin dute

tti-pi-ttapa

Iruritako errekaen ezker aldean dauden hamasei baserri bi aldiz isolatuak gelditu dira aurten, lur erorien ondorioz. Lehenbiziko eroria urtarrilaren 3an gertatu zen eta bigarrena 23an, biak leku berean, Iruritako herrigunetik sei bat kilometrora. Lehenbiziko aldirian Mariezkurrena eraikuntza enpre-

sak garbitu zuen errepidea eta bigarrenean udal langileek eta bonberoek. Udalaren eta bizilagunen ustez, Iberdrolak Artesiagan duen zentralera doan kanalak dituen ur isuriak eragin du lur eroria eta ardur hartzea eskatu diote enpresari. Iberdrolatik, berriz, lehenik ardura zeinena den zehaztu behar dela erran dute.



FLASH

Elizondoko Abastos Plazako beira ontzia

Elizondoko Abastos Plazan dagoen beira edo kristala biltzeko edukiontzia gaizki erabiltzen dela jakinarazi dute garbiketara zerbitzuek. Auniztan kristalezko gauzak edukiontzitik kanpo uzten baitira, barnean tokia izanta ere. Hau dela eta, Balleko Udalak inguru horretan dauden ostatu eta jatetxeei edukiontzia ongi erabiltzeko eskaria egin die, «paratu nahi ez diren zigorrak paratu beharrik ez izateko».

Cabodevillari 600 euroko saria

Baztango monumentu megalitikoak (trikuharriak, iruinarriak eta harrispilak) katalogatzen Jesus Cabodevillak egindako lana eskertu nahi izan du Udalak, 600 euroko laguntzarekin.

Errepresaliatuen Aldeko II. mus txapelketako txapelkunak Mirrux eta Joxe izan dira, eta bigarren gelditu dira Iban eta Mikel. Irabazleek bildotsa eta txapela eraman dute eta bigarrenek amnistiaren aldeko elastikoak. Txapelketa Amnistiaren aldeko mugimenduak antolatua zen.

Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
Aseguru orokorrak
 © 948581468 • 948580433
 Frantziarako etorb. 12 •
 Ameztialde 3B • ELBETE

asnáp me
 consultoría económica de la propiedad y gestión empresarial

- GIZARTE ETA LAN ARLOA
- KONTABLE-FISKALA
- JURIDIKO-MERKANTILA

- LANGILE AUTONOMOAK
 - Garraioak
 - Elektrizitatea
 - Eraikuntza
 - Igalneroak...
- NEKAZARIAK ETA MENDI LANGILEAK
- ENPRESA GUZIAK
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Garraioan asessoramendua
- Diru-laguntza ezberdinak
- Sozietateen inpostuak
- Errenta aiturpenak

DONOSTIA
 Rosa Semerari, 4. bulego
 Tfno: 948 451922 Tfno/Fax: 948 451418
 web: carlos@asnappme.com

ELIZONDO
 Santxo, 51. bulego
 Tfno/Fax: 948 580 504
 elizondo@asnappme.com

HELEGA
 Zuzena, 1. bulego
 Tfno: 948 262238 Tfno/Fax: 948 262344
 gungui@asnappme.com

MENDI OSTATUA
 Santiago 25 - © 948 580313
ELIZONDO

MENDIALDE Jatetxea

 AMAIUR • © 948453060

SENPERE

Ihauterien kari herriko dantzariak etxez etxe ibiliko dira hiru larunbatez

Akitaniako gobernua berritu beharko da martxoan

Franc DOLOSOR

Ihauteriak otsailaren 21ean ospatuko dira, arutengoan «Senpere 2004, Joko Olinpiadak» gaiarekin. 7an eta 14ean, dantzariak etxez etxe ibiliko dira «xingar eta arrollte, batedo berzte» galdetzeko. Musika eta dantzaren truke jateko eta edateko eske ibiliko dira herriko gazteak. Otsailaren 20an, ostiralarekin, «Ihauteriak Euskal Herrian» solasaldia eskainiko du Haizpea Leizola Oxtikenean, 19:30-etan. Larunbat eguerditan sorginak dantza, zintzur bustitzea eta bazkaria izanen dira. 21:30etan kontzertua Zipotzero taldearekin.

Akitaniako bozak

Heldu den martxoan ez da bozik izanen gure kantonamenduan bai-

nan Akitaniako lurralde gobernua berritu beharko da. Aurten, 728 miliun euroko buxeta du Akitaniak formakuntza, garraioak, garapen ekonomikoa eta bizi kalitatea hobetzeko. 1998tik ezker anitzak agintzen du PSF, PCF eta berdeek egin zuten akordio bati esker. Orain baliteke eskuina nagusitzea. Herri nagusi den eskuina zatiturik presentatuko da UMPko Alain Juppé eta UDFko François Bayrou ez direlako akort eman elgarrekin presentatzeko. PSF, PCF, ezker muturra, CPNTko ihiztariak eta Berdeek ere lehia hortan parte hartuko dute. Frente Nazionala ere present izanen da. Abertzaleak ez dira presentatzen, aurten bozkatzeko sistema aldatu baita. Orain, Akitaniako bortz departamendue-

tan presentatu behar da eta hori ezinezkoa da abertzaleentzat.

Triatloia

Senperako triatloia maiatzaren lehenean iraganen da aintziraren inguruan.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Aurten lau aldiz hogoi urte bete dituztenek elgarrekin afaldu zuten gan den abenduaren 14an Ibarrungo Bonetegian.

Telethon diru bilketa

Telethonaren kari Ibarrunen ospatu zen

bestan 5432 euro bildu ziren herrian. Arretxea kolegioko ikasleek 3146 euro bildu zituzten.



ARGAZKIA: STUDIO DE LA NIVELLE

Urtarrilaren 22an Adin Ederra elkartearen biltzea ospatu zen Amotzeko Mendionde ostatuan.

Landibar ZENTRO KOMERTZIALA
URDAZUBIN

300 m² perfume markarik ezagunekin
Usain-onak, kosmetikoak...
Euskal Herriko preziorik hoberenak

© (0034) 948 599 400 • **EGUNERO IREKIA**

ZOANSA

SALMENTA
MARKA GUZIEN KONPONKETA

Tel.: 948 62 55 55 • Faxa: 948 62 55 05

Banarta, 2 • Alkaiaga ind. • 31789 LESAKA
(Sarrera Beratik)

AZKAIN

Ihauteriak otsailaren 21ean

Hartza iratzarri orduko herriko gazteek karraketan ibiliko dute

Angela eta Xamo

Otsailaren 21ean, Azkaingo herritarrek ihauteriak ospatuko dituzte. Urtean zehar egiten diren animazioneen artean hitz ordu horrek toki berezi bat hartzen du: negua hasten baita pixkanaka urruntzen, egunak luzatzen dira. Udaberriaren lehen-uztari ari dira agertzen, jendeen bihotza berotuz...

Usaian bezala, eguna hartzairen atzartzearekin hasiko da. Gazteak etxetik etxera ibiliko dira, hartzarekin batera, «Xingar ta arroltze» eskatuz. Gero bilduko dira Bil tokin bazkari baten inguruan. Elgarretaratze nagusia arratsaldeko 3etan finkatua da herriko plazan. Musikariek ibilaldia alaituko dute herriko karraketan, eta Ikasleak taldeak ere parte hartuko du, ihauterieri lotuak diren dantza batzu proposaturik. Eta ez ditugu Pantzar eta Pette ahanzti behar. Denak badakigu

Pantzarri auzia egin behar zaiola. Kasu emak Pantzar, gan den urtean egindako gaixtokeri guzieren arabera, konduak eman beharko dituk!

Besta segitzeko, parte hartuko duten jende guziak bil tokin gomituak izanen dira, krakada bat hartzeko. Eta bixtari da egun hori poteo batekin bukatuko dugula, plazako ostatueta, Martintxo eta Kornelio taldeen musikariren laguntzarekin.

«Manex Ehorzlea» Kronikak

Urtarrilaren 24 an, Bil Toki gelan antzerki emanaldi bat egin da "Herriko ehorzlea baten kronikak". Gaualdi hori Herriko etxeak eta Turismo bulegoak antolatu zuten. Jende ainitz hurbildu zen "Manex" en emanaldia ikusteko. Zazpi ixtorio laburrekin, ordu bat eta erdiz, Manex pertsonaiak bere



ARGAZKIA: ANGELA

Andra Mari Eskolako 4. eta 5. urteko haurrak Val Louronen ibili ziren 5 egunez eskiatzen ikasten. 39 ziren orotarot 4 erakaslerekin. Argazkian CM1 eta CM2-ko haur batzu agertzen dira, eski oinetakoak jantzirik pistetan trebatzeko prest-prestak.



munduan sarrarazi gintuen gai desberdinak aipatuz: familia, haurrak, herriko bizia, heriotza, dirua, amodioa, politika, hori dena umore goxo batean.

Aisialdi zentroa

Asialdi zentroak otsaileko oporretan aktibitateak eskainiko ditu urtero bezala hau-

rentzat, otsailaren 16-etik 25era. Aurten leurrategian ibiliko dira, zinema tailer batean parte hartzen ahalko dute eta krepak prestatzen ahalko dituzte arteak.

Ateraldia elurretan

Herriko Etxeak elurretara joateko ateraldia antolatzen du Otsaila-

ren 14an 8-15 urteko haurrentzat. La Pierre Saint Martin estazioan iraganen da eguna, 35 •-tan. Tokiak mugatuak izanen dira. Laurent Albistur arduraduna deitzen ahal da zerbaki huntarat: 0618620206.

Union Basque Mus txapelketa

Urtero bezala, Maider Laduchek «union basque» taldearen mus txapelketa antolatzen du hilabete honetan, Plazan ostatuan. Parte hartu nahi dutenentzat, izeak eman behar dira otsailaren 12a aintzin, zerbaki huntarat 05-59-54-00-80 (10 euro bakoxtarentzat). Txapelketa otsailaren 13an hasiko da, ortziralarekin.

LARRALDEA SAGAROTEGIA

Bertan egindako sagardoa eta sagardotegiko menua

Telleria Auzoa • LEKARAZ

© 948 452121

Okindegia Jatetxea

Uxoa

OKINDEGIAN

- Ogi artiseua, eguneko eta txapata
- JATETXEAN
- Menua eta karta (asteburuetan)
- Especialitate parrilari erretako jakietan

Orduki Industrialdea • Telefon: 948 45 24 01 • 31113 ARIZKUN

HERRIKO ETXEO EDANTEGIA

Café de la Mairie

MAIXAN ETA VÉRONIQUE SARA • TEL 0559542519

JATETXEA

© 948 580101

Santiago 1

ELIZONDO

Galeria

SARA

Hogeita hamalau bikote aritu ziren errugbiko mus txapelketan

Turismo Bulegoaren biltzar nagusia otsailaren 12an eginen da Herriko Etxean

Xan eta Saski

Sarako errugbi taldeak urtarileko laugarren asteburua matxik gabe izaki, aprobetxatu zuten orain usaia bilakatu den mus txapelketa antolatzeko. Orotara 34 taldek parte hartu zuten, gehienak saratarak bainan inguruko herrietatik talde batzuk etorri ziren. Hala nola Urruñatik, Azkaindik, Arrosatik, bertzeak bertze. Afaldu aintzin, multzoko partida guztiak eta partidak finalerdietaraino egin ziren. Afal ondoren berriz, azken norgehiagokak. Joko hortan maila nagusian Urruñako bikotea izan zen trebeena, Marinea Jeannot eta Harramendi Manuelek irabazi bait zuten Beruet Ramuntxo senar emazteen kontra.

Bigarren mailan aldiz, mus txapelketa guzitan ikusten diren saratar batzuk izan ziren irabazle, Elizalde Pettan eta Bidegain Antton. Horiek mendeen hartu zituzten Behe Nafarroatik etorritako Ernaga anaiak. Azkenik, hirugarren mailan Millafrankarrak izan ziren irabazle, Larre eta Girbon jaunak. Finalean bi gazteen kontra aritu ziren, Goienetxe Fabien eta Iparragirre Fabrice.

Besta gomitea

Besta gomiteak urte guziz bezala afora eginen du otsailaren 21ean, iazko besten bilduma egiteko eta heldu diren en egitaraua prestatzen hasteko. Aurten ere Astigarragako Petritegi sagarnotegian eginen

da. Afaldu eta gero gaua pasatuko dute ondoko dantzalekuan. Besta komiteko kide guztiak gomituak dira, baina aitzinetik izenak eman beharko dira Frederic Barnetxeri edo Maialen St Martini.

Turismo Bulegoa

Turismo bulegoak biltzar nagusia eginen du otsailaren 12an, 19:00etan Herriko Etxean. Interesatuak diren guzietan idekia da.

Errugbia

Lehen bi matxak etxean irabazi eta saratarrek uste zuten bigarren fase honetan aise sailkatuko zirela finalerdientzat. Bainan fitte ohartu dira ez dela punturik bazterrean utzi



ARGAZKIA: XAN

Goitiko argazkian, Hirugarren mailako finala aintzinean eta lehen mailako finala gibekek aldean. Beheitian, irabazleak Marinea Jeannot eta Harramendi Manuel.

behar. Hirugarren matxan Azkaingo auzoen kontra aritu ziren Kiroleta zelaian. Matxa txar baten ondoren hiru puntuak eskapatu zitzaizkien basurdeei, 12 eta 8 galdu baitzuten. Saratarren etorkizuna ar-

gia bazirudien bi matxen ondoren, orain piska bat ilundu da. Punturik ez da galdu beharko etxean eta denbora berean etxetik kanpo batzuk lapurtu beharko dira, finalerdietara ailegatzeko.



SORTZEAK

Olatz Iturralde Arretxea, Zozaiakoa, urtarrilaren 10ean.

Iraitz Iturralde Arretxea, Zozaiakoa, urtarrilaren 10ean.

Naroa Ballarena Goienetxe, Elizondokoa, urtarrilaren 14an.

Naia Iriarte Arrieta, Arizkungoa, urtarrilaren 20an.

Asier Organbide Aleman, Elizondokoa, urtarrilaren 25ean.

Jon Koldobika Urrosolo Elgorriaga, Lesakakoa, urtarrilaren 11n.

Jon Irigoien Ubiria, Lesakakoa, urtarrilaren 19an.

Aimar Igartzabal Gallego, Lesakakoa, urtarrilaren 24an.

Iker Osua Cabida, Berakoa, urtarrilaren 20an.

Leire Arnaiz Pizzio, Berakoa, urtarrilaren 22an.

Asier Latorre Osua, Etxalarkoa, azaroaren 9an.

Janire de la Cruz Arburua, Etxalarkoa, abenduaren 19an.

Irati Elizalde Mitxelena, Etxalarkoa, Abenduaren 26an.

Jokin Lekuona Olaizola, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 19an.

Luzia Arrizabalaga Altza, Berakoa, urtarrilaren 27an.

Ekaitz Mutuberria Gastesi, Leitzakoa, urtarrilaren 9an.

Itsaso Saenz Bezunartea, Leitzakoa, urtarrilaren 21ean.



HERIOTZAK

Fermin Arburua Iparragirre, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 14an, 52 urte.

Ceferina Arraztoa Zamarrena, Erratzukoa, urtarrilaren 13an, 98 urte.

Juan Perotxena Etxauri, Elizondon, urtarrilaren 16an, 75 urte.

Salvador Gamio Garbisu, Zigakoa, urtarrilaren 21ean, 78 urte.

Jose Fermin Elduaieen Baraibar, Leitzakoa, urtarrilaren 16an, 81 urte.

Jeanne Ursuegi, Sarakoa, urriaren 15ean, 82 urte.

Xalbat Leizagoien, Sarakoa, azaroaren 5ean, 79 urte.

Marie Bernarde Azpirot, Sarakoa, azaroaren 9an, 76 urte.

Pierre Elhorga, Sarakoa, azaroaren 9an, 88 urte.

Jeanne Gracy, Sarakoa, azaroaren 13an, 90 urte.

Jean Pierre Berro, Sarakoa, azaroaren 12an, 71 urte.

Lucie Larralde, Sarakoa, abenduaren 9an, 82 urte.

Marie Jauregi, Sarakoa, urtarrilaren 5ean, 88 urte.



EZKONTZAK

Herve Amigorrena eta **Marie Jo Berruet**, Sarakoak, urriaren 4an.

Frederic de Izagirre eta **Fabienne Iribarren**, Sarakoak, urriaren 4an.

Jakes Iriarte eta **Amaia Sudupe**, Sarakoak, urriaren 31n.

Jean Baptiste Fagoaga eta **Gracy Laurence**, Sarakoak, azaroaren 28an.

Philippe Ivandekics eta **Brigite Taillade**, Sarakoak, abenduaren 13an.



Fermin ARBURUA IPARRAGIRRE

Zugarramurdin, 2004ko urtarrilaren 14an

“Zurekin ederki ikasi ginuen bezala, lepotik hartu ta kantuz segituko dugu! Izigarri maite zaitugu tio bueno! biba zu!”

ZURE HILOBAK.



**Eskela eta eskertzak
948 631188**

Eskela jartzeko (nahi izanez gero argazkiarekin) 65 € ordaindu behar da
Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea **ttipi-ttapara** igorri faxez edo postaz, argazkiarekin eta sartu nahi den testuarekin batera.

HERRI KIROLA

Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketen finaletan arituko da Beti Gazte

Lesakarrak Eskoziako Munduko txapelketan ere izanen dira otsailaren 19tik 22ra

A.A.

Urtarrilaren 10ean abiatu zen Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa. Are-soko taldea lur gainean hasi zenetik, Beti Gazte taldea da eskualdeko ordezkari bakarra txapelketa honetan eta aspaldiko urteetan bezala, Bizkaiako Abadiño-rekin batera, txapelak janzteko faboritoak dira lesakarrak.

Larunbat honetan, otsailaren 7an, jokatu-ko da lehendabiziko finala. 600 kiloko kategorian arituko dira Bizkaiako Arrigorriagako kiroldegian 17:00etan. Urtarrilaren 10ean Laudion eta urtarrilaren 25ean Betelun egindako saioen ondotik, hamabi talderen artean, Beti Gazte, Abadiño A eta B, Ñapurak, Arrizkuzubi eta Altamirak lortu dute finalerako txartela.

Biharamonean, goizeko 11:00etan 680 kiloko txapelaren bila arituko dira Arabako Araia edo Alegrian. Pisu honetan sei talde bakarrik daudenez, ez dute kanporaketa faserik egin. Beti Gazte-rekin batera, Abadiño A eta B, Ezpeletako Ñapurak, Altamira eta Torrekolanda arituko dira igandeko saioan.

Otsailaren 14an, 560 kiloko finala jokatu-ko da Astigarrako pilotalekuan edo kiroldegian, 17:00etan. Pisu arinean zazpi talde aritu-



ARTXIBOKOA

Duela bi urte Irlandako Cork hirian burututako Munduko txapelketako irudi honek erakusten duenez, hainbat herrialdetan aritzen dira sokatiran. Txapelketa hartank, 600 kilotan brontzezko domina eskuratu zuten Beti Gazteko tiralariek Japoniako nesken selekzioarekin batera ageri dira.

Eskoziako Glasgow hirian jokatu-ko da Munduko txapelketa otsailaren 19tik 22ra

Euskal Herriko goma gaineko txapelketa bukatu bezain laister, Munduko txapelketa jokatu-ko da otsailaren 19tik 22ra Eskoziako Glasgow hirian. Otsailaren 18an hartuko dute hegazkina Beti Gazteko tiralariek. Lehen bi egunetan klub arteko txapelketan parte hartuko dute. Gero, Euskal Herriko txapelketan lortutako emaitzaren arabera, otsailaren 21 eta

22an jokatu-ko den nazioarteko txapelketan parte hartzeko eskubidea izanen dute edo ez.

Ez da lehenbiziko aldia Beti Gazte taldeak Munduko txapelketan parte hartzen duela. 1997an, Ingalaterrako Torbay hirian zilarrezko bi domina eskuratu zituen klub arteko txapelketan, 560 eta 640 kilotan. 1999an Munduko lehen txapelketa ira-

bazi zuen Irlandako Carlow hirian 560 kilotan. 600 kilotan brontzea eskuratu zuen. Munduko txapelketarik onena 2000. urtean egin zuten Beti Gaztekoek Holandako Slaggharen hirian. Klub artekoan urrezko domina lortu zuten 560 eta 600 kilotan eta nazioartekoan, 640 eta 560 kilotan brontzezko eta zilarrezko dominak eman zizkieten Euskal Herriari. 2002. urtean, azkenik, Irlandako Cork herrian jokatu-ko Munduko txapelketan brontzezko domina eskuratu zuten 600 kilotan. Ea aurten domina uzta hori haunditzerik baduten!

dira, eta Orozkon urtarrilaren 17an eta Gati-kan urtarrilaren 24an egindako saioen ondotik, Beti Gazte, Abadiño Arrizkuzubi, Torrekolanda, Altamira eta Au-

zolan izanen dira fina-lean.

Otsailaren 15ean, azkenik, 640 kiloko finala jokatu-ko da Abadiño-ko Matiena pilotalekuan, 11:00etan. Pisu hone-

tan ere zazpi talde aritu dira. Laukizen urtarrilaren 11n egin ziren lehen tiraldietan Beti Gazte nagusitu zitzaion Abadiño-ri eta otsailaren 1ean Erandion egiteko-

ak ziren azkenak. Horren arabera sei finalista izanen dira, seguru-erik, Beti Gazte eta Abadiño A eta Brekin batera, Altamira, Torrekolanda eta Auzolan.

PILOTA

Bortzirietako eskuz banakako txapelketaren finalak jokatu ziren urtarrilaren 24an Beran

Hamar kategoria ezberdinetan final ikusgarriak ikusi ahal izan ziren

A.A.

Urtarrilaren 24an jokatu ziren Berako Eztegarra pilotalekuan Bortzirietako eskuz banakako hirugarren pilota txapelketaren finalak. Guzira 103 pilotari aritu dira txapelketa honetan.

Aurrebenjamin B mailan, Beñat Mitxelena beratarak 16 eta 5 irabazi zuen Egoitz Eizagirre beratarren kontrako partida. Emaitzak erakusten ez badu ere, partida ikusgarria eskaini zuten Gure Txokoako bi pilotariek.

Aurrebenjamin A mailan, Igantziko Biltokiko Unai Telletxeak 16 eta 13 irabazi zion Lesakako Arkupe elkarteke Jon Olaizola lesakarrari.

Benjamin B mailan, Etxalarko Altxatoko Beñat Maiak 16 eta 9 irabazi zion Berako Gure Txokoako Kepa Remirori.

Benjamin A mailan, Gure Txokoako Joseba Martinez beratarak 16 eta 5 irabazi zion Arkupeko Unai Zamorano lesakarrari.

Alebin B mailan, Josu Sanjurjo lesakarrak 16 eta 13 irabazi zion Iker Rojo igantziarrari.

Alebin A mailan, Jon Jorajuria aranztarak 16 eta 9 irabazi zion Aitor Begino igantziarrari.

Infantil B mailako finalen, Victor Fernandez lesakarrak 18 eta 14 irabazi zion Andoni



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

Ehun pilotari baino gehiago aritu dira Bortzirietako eskuz banakako hirugarren txapelketan, hamar kategoriatan banatuak.

Riopedre beratarri, partida parekatuan.

Infantil A mailan bi igantziar izan ziren finalen, eta Imanol Goienetxek 18 eta 4 irabazi zion Beñat Txoperenari.

Kadete B mailan, lurgi Berrueta etxalartarrak

ere aisa hartu zuen mendean Josu Larretxea aranztarra, 18 eta 4 irabazi baitzuen.

Kadete A mailako txapela Arantza aldera joan den zela jakina zen, Ekaitza elkarteke Eneko Ordoki eta Joseba Madariaga izan baitzi-

ren finalean. Partida borrokatua eta orekatua eskaini zuten, baina azkenean Madariaga nagusitu zen, 18 eta 16.

Finalen ondotik, ohiko den bezala, sari banaketa egin zen txapelketan parte hartu duten pilotari guzientzat.

FLASH

Belate paleta goma txapelketaren finala

Urtarrilaren 17an jokatu ziren Etxarri-Aranazko pilotalekuan Belate elkarteke antolatutako gizonen paleta goma txapelketaren finala eta hirugarren posturako partida. Final nagusian, Santos eta Burgetek 30-28 irabazi zieten Lorea anaiei. Hirugarren postua Beloki eta Jararentzat izan zen, Marroyo anaiei 30-11 irabazita. Bertze aldeetik, joan den larunbatean jokatzea zuten Leitzaan bigarren pilota goxo txapelketaren finala Otxoteko-Telletea lesakarrak Retegi-Urrutia beratarren kontra.



Benjamin B mailako finalistak, Gure Txokoako Kepa Remiro eta Altxatoko Beñat Maia eta Alebin B mailakoak, Biltokiko Iker Rojo eta Arkupeko Josu Sanjurjo, epaileekin batera.

AGENDA

egunez
egun

ZINEMA

BERA

Otsailaren 5ean Achero Mañasen «Noviembre» filmea ikusgai izanen da Kultur Etxean, 20:30etan, Berako Zine Klubaren barnean.

Otsailaren 15ean haurrentzako «Unibertsolariak» filmea eskainiko du Kultur Batzordeak Kultur Etxean, 17:00etan.

IKASTAROKAK

BERA

Otsailaren 14tik apirilaren 3ra altzari konponketa ikastaroa antolatu du Uxua Emakume Taldeak, Kultur Batzordearen laguntzarekin. Kevin Butcher irakaslearekin, larunbatero 10:00etatik 13:00etara.

IÑAUTERI BESTAK

BERA

Otsailaren 18an Isidoro Fagoaga Musika Eskolak iñauterietako besta antolatu du. 17:00etan Musika eskolatik aterako dira musikariak bakoitza bere mozerroarekin. 18:00etan mozerro lehiaketa eta ondoren besta akabaila.

MENDI ATERALDIAK

AZKAIN

Otsailaren 14an elurretara joateko Saint Martin estaziora ateraldia antolatu du Herriko Etxeak, 8-15 urteko haurrentzat

MUS TXAPELKETAK

AZKAIN

Otsailaren 13tik aitzin Union Basque taldearen mus txapelketa Plazan ostatuan. Izen ematea otsailaren 12a baino lehen 0559540080 telefonoan.

TELEBISTAKO TXOKOA



IÑAUTERIEK SEGIDA TTIPI-TTAPAN

Arantzan eta Igantzin hartuko dute lekukoa mozerroek

Ituren, Aurtiz eta Zubietako joaldunen pulunpa soinuak eta mozerroen astakeriak, Sunbillako karrroza ikusgarriak, eskolako neska-mutikoen disfrazak eta gazteen eskea... ttipi-ttapa telebistan horiek guziki ikusi ahal izan zenituzten joan den astean, nahiz eta antenarekin arazo batzuk izan. Iñauteri egun «ofizialak» ailegatu baino lehen, aste hondar honetan berean Donamariako gazteak eskean ibiliko dira, beraien bazkari-afariak egiteko. Arantzan ere, mozerro xuriek beraien ohiko ibilbideak egingen dituzte auzoz auzo eta baserriz baserri. Hauek otsailaren 5etik 8rako aste hondarra hautatu

dute iñauteriak ospatzeko eta urtero bezala, egitarau bete-betea izanen dute. Igantzikoek berriz, otsailaren 14 eta 15ean egingen dituzte iñauteriak. Ortziralean Berri-zaun inguruan ibiliko dira gazteak eskean eta larunbatean herrian eta inguruko auzoetan. Bi iñauterien berri ttipi-ttapa telebistan izanen duzue.

SUNBILLAKO IÑAUTERIETAKO BIDEOA SALGAI

TTIPI-TTAPA TELEBISTAK Sunbillako iñauteriei buruzko bideoa ekoiztu du bertze urte batez. Berehala, Sunbillako estankotan izanen da salgai.

DISKAK



«Nire ametsa»

DAIA

RUN DOWN MUSIC, 2003

Orokorrean house estiloko musika biltzen du Daiak «Nire ametsa» diskan, baina dance eta arabiar estiloko ikutu batzuk ere baditu. Ainhua, taldearen abeslariak dioenez, «Euskal Herrian egin den lan erabat berritzailea da, euskaraz, gaztelaraz, frantsesez eta ingelesez grabatua. Maitasun handiarekin egindako lan hau zerbait ezberdina izatea lortu nahi da, musika euskaldunaren panorama honetan produktu berria sortzeko asmoarekin egin». Diskaz gain bideoa ere egin dute, «Aukera» kantuariarekin eta Euskal Herriko telebista kate guzietan igortzen ari dira. Bideo hau Tolosako Idiakez jauregian filmatu zen, DJ Charly-z gain (Wazen-eko kide ohia) gain bertze lagun aunitzek parte hartu zutelarik. Run Down Music-eko kideak pozik daude Daia taldeak izan duen harrerarekin, bai karrikan, baita komunikabideetan ere.

BASERRIA

DATU ITURRIA: NAFARROAKO GOBERNUA (Urtarrilaren 16tik 23ra bitarteko prezioak)

ZERRIKIA



Zerrikumea
(19 kilo): 39,50 € (+1,00 €)

Zerri gizona
0,825 € kilo. (+0,015)

Zerramak:
0,42 € Kg/bizirik. (=)

BEHIKIA



Aretze gizenak:
Idixkoak: €/kg. Kanal

Extra 3,22 (+0,06)
1.koa 2,10 (+0,06)
2.koa 2,97 (+0,06)

Urruxak: €/kg. Kanal
Extra 3,27 (+0,06)
1.koa 3,17 (+0,06)
2.koa 3,04 (+0,06)

Oharra: Prezioak 180-220 Kg. kanalean pisatzen duten aretzeenak dira.

Aretze tikiak
(15 egun ingurukoak):

Aretze mestizoak:
urruxak 234,39 (=)
idixkoak 235,00 (=)

Aretze nabarrak:
urruxak 182,00 € (=)
idixkoak 206,00 € (=)

Zaldikoak: €/k
Sortuberriak: 2,90/2,96
Zaldi-behorrak: 1,70/1,90
Bildotsak: €/k
6-8 kilokoak: 5,50/ 5,70
8-10 kilokoak: 4,20 / 4,70

AGENDA egunez egun

JAKIN BEHARREKOAK

Etxean botikak gordetzeko aholkuak



Sendagaiak inolako ordenarik gabe pila-
tzeak arazo bat baino gehiago ekar dezake.
Etxeko botikina modu egokian mantentzeko ez zaie soilik kontserbatzeko baldintzei begiratu behar, eta medikamentu kantitate-ari eta iraungipen datari ere egin behar zaie kontu. Eta, jakina, umeen eskutik kanpo eduki behar dira.

BOTIKINA IKUSKATU

- Saiatu sendagai aunitz ez gordetzen, horiek kontrolatzea zailagoa izanen baita.
- Ikuskatu zure botikina aldizka —onena hiruz-lau hilean behin—, eta kendu iraungi diren edo jada behar ez dituzun botikak. Berdin egin prospekturik gabe daudenekin. Iraungita dauden medikamentuek denbo-

raren poderioz indarra galdu edo toxikapen eta pozoidurak eragin ahal dituzte.
- Idatzi kaxan zein egunetan erosi duzun eta zertan erabiltzekoa den.
- Automedikatze-ko aukera sailhesteko, ez erabili medikuak agindutako tratamenduetatik soberan geratu zaizun sendagairik.

- Balio ez duten botikak ez bota zakarrontzira. Eraman itzazu farmaziara edo birziklatzeko leku batera.

ERNE HAURREKIN...

- Ez utzi botikarik umeen eskura. Ahal dela, gorde itzazu giltzapetan, neurri guztiak beharrezkoak baitira umeen jakin minari

[Haurren toxikatze gehienak \(%30\) nahigabe hartutako botiken ondorioz gertatzen dira.](#)

[Beraz, ez utzi botikarik umeen eskura.](#)

Botikina aldizka begiratu eta iraungi diren edo jada behar ez diren botikak kendu.

dagokionez. Ez hartu botikarik haurren aitzinean, eta ez erran gozoki zaporea dutela, horiekiko duten interesa areagotu egingen zaie eta.

- Bitamina eta mineral osagarriak edo ez-tarrirako gozokiak ere umeengandik urruti gorde behar dira.

- Izan ezazu beti larrialdi toxikologikotarako telefonoa eskura, batez ere ume txikiekin bizi baldin bazara. Eta ez esperatu horren beharrik izan arte telefono zenbakia bilatzeko eta larrialdi telefonoen zerrendan idazteko.

- Haurren toxikatze gehienak (%30) nahi-

gabe hartutako botiken ondorioz gertatzen dira.

NON ETA NOLA GORDE

- Sendagaiak eta hornidura medikoak leku garbi, lehor eta freskoan gorde, argitik babestuta eta arratoi eta labezomorrotatik urruti. Botika batzuk hozkailuan gorde behar dira. Botikak beren jatorrizko ontzi edo kaxan gorde.

- Ez gorde sendagaiak bainugelan edo sukaldean. Leku horietan hezetasuna eta tenperatura etengabe aldatzen direnez medizinen indarra deuseztatu edo murriztu baitaiteke.

- Irakur ezazu arretaz prospektua.

CONSUMER Aldizkaria

LIBURUAK



GRETA

Jasone OSORO

ELKAR, 2004

«Tentazioak» eta «Korapilok» bere bi ipuin-bilduma arrakastatsuen ondotik, nobelari ekin dio Jasone Osorok oraingoan. Greta liburuko pertsonaia inportanteenetakoa da, baina ez da pertsona: maniki bat da, urtetan arropa-denda bateko eskapartatean egondakoa, eta orain Oskarrek bere etxean gordetzen eta zaintzen duena. Goxotasunezko harreman berezia du Oskarrek Gretarekin: ez—gaizki-pentsatu batek usteko duenez— sexua-

ren alorrekoa, baina bai txikitant galdu zuen amaren nolabaiteko ordezkotza bilatuko balu bezala. Oskar, baina, ezkontzera doa, betiko andregai izan duen Anarekin. Anak ulertzen du Oskarrek Gretarengana sentitzen duena, baina halako batean gehiegizkoa iruditu eta hautazera behartzen du: edo Greta edo ni. Begirada zinematografiko darabil egileak, prosa ederreko pasarteak eta elkarrizketa arinak tar-tekatuz.

IÑAUTERIAK

DONAMARIA

Otsailaren 6tik 8ra.
Xehetasunak 18. orrian.

ARANTZA

Otsailaren 5etik 8ra.
Xehetasunak 18. orrian.

ERRATZU

Otsailaren 7an Gizakunde Eguna. Xehetasunak 22. orrian.

IKASTAROAK

BERA

Otsailaren 14tik ekaina bitarte Antzerki tailerra (hastapena) ikastaroa antolatu du Lamixine elkarteak, Berako Kultur Batzordearen eskutik. Izen ematea (18 urtetik goiti) otsailaren 13a bitarte 012 telefonora deituta.

Otsailaren 27tik ekaina bitarte Ahots teknikak eta Munduko abestiak ikastaroa antolatu dute Berako Abesbatzak eta Lamixine Taldeak, Berako Kultur Batzordearen laguntzaz. Ortziralero 19:00etatik 21:00etara Isidoro fagoaga Musika Eskolan. Izen ematea 012 telefonoz. Xehetasunak 9. orrian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

112 TFNORA. DEITU

Otsailaren 2tik 8ra

Arantza, Bera (M.L. Apeztegia), Narbarte, Elizondo (J. Iturralde), Leitza (A. Gimeno).

Otsailaren 9tik 15era

Lesaka (M.J. Txoperena), Doneztebe (J.A. Mendia), Elizondo (E. Arrupea), Urdazubi, Leitza (M.I. Larraia).

Otsailaren 16tik 22ra

Bera (A. Lasarte), Igantzi, Sunbilla, Elizondo (F. Garcia Mata), Leitza (M.T. Plaza).

00-34 948 63 11 88

Sail honetan iragarkia jartzeko 7 € ordaindu behar da. Ttipi-ttapa telebistan ere agertuko da (nahi izanez gero argazkiarekin). 7 € Rural Kutxako 3008 0080 53 0703304626 kontuan sartu eta justifikantea ttipi-ttapa igorri faxez edo postaz.

...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.

ETXEBIZITZAK

- 101. Saldu
- 102. Erosi
- 103. Errentan emateko
- 104. Errentan hartzeko
- 105. Etxe konpartituak
- 106. Bertzelakoak

GARAJEAK/LOKALAK

- 107. Saldu
- 108. Erosi
- 109. Errentan emateko
- 110. Errentan hartzeko
- 111. Bertzelakoak

LURRAK/ORUBEAK

- 112. Saldu
- 113. Erosi
- 114. Errentan emateko
- 115. Errentan hartzeko
- 116. Bertzelakoak

ZERBITZUAK

- 201. Hargin/Igeltseroak
- 202. Pintoreak
- 203. Elektrizistak
- 204. Iturginak
- 205. Zurginak
- 206. Mendi lanak
- 207. Garraioak
- 208. Bertzelakoak

LANA

- 301. Eskariak
- 302. Eskaintzak

IRAKASKUNTZA

- 401. Eskaintzak
- 402. Akademiak

MOTORRA

- 501. Salerosketak
- 502. Tailerrak

ANIMALIAK

- 601. Emateko
- 602. Salerosketak
- 603. Klinikak

DENETARIK

- 701. Galdu / aurkituak
- 702. Salerosketak
- 703. Bertzelakoak

HARREMANAK

- 801. Agurrak

ETXEBIZITZAK

101 Saldu

LEGASA. Pisua salgai. Aukera ona. ☎ 948 450027.

ETXALAR. 85 m²ko pisua salgai. Egoera oso onean.

Garajearekin edo garaje gabe salgai. ☎ 948 635 388 edo 610 533926.

ETXEBIZITZAK

102 Erosi

BAZTAN. Pisu ekonomikoa erosiko nuke. ☎ 639 526865 (10:00etatik 22:00etara).

BERA. Pisua erosiko nuke. ☎ 605 453499.

BERA. Pisua erosi nahi dut. ☎ 650 219120.

ETXEBIZITZAK

103 Errentan eman

URDAZUBI. Apartamentua errentan ematen da. ☎ 948 599140.

ETXEBIZITZAK

104 Errentan hartu

BERA-LESAKA-ETXALAR. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 687 039889.

BERA. Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 626 852937.

LURRAK/ORUBEAK

112 Saldu

LEITZA. Lur eremua salgai, Basakabi ondoan. ☎ 628 535954.

LANA

301 Eskariak

Emakumea eskaintzen da kamarera lan egiteko. Frantsesa eta euskara. Autoa badut. ☎ 650 772171.

Klinika laguntzailea eskaintzen da, beharra duten adinekoak edo haurrak zaintzeko. Esperientziarekin. ☎ 690 167449.

Neska euskaldun batek umeak zainduko lituzke lru-

ADOS

- **BERA.** - Terreno bat erosi nahi da. - Beran pisu bat erosten da.
- **DONEZTEBE.** - Santa Luzia plazan apartamentu eta pisu berriak salgai.
- Terreno eraikigarria salgai.
- Bigarren eskuko pisuak salgai.
- **ELIZONDO.** - Pisu pare bat salgai
- Terreno bat erosi nahi da.
- **ITUREN.** - 5 garaje egiteko lizentzia duen lur eremua salgai.

BAZTAN-BIDASOAN: terreno eraikigarriak salgai. Borda eta baserriak erosi nahi dira.

948 451 841 / 607 978 656

ñean. ☎ 948 237031.

Neska eskaintzen da interna edo externa modura lan egiteko. Adinekoak zaintzen esperientzia badut. ☎ 680 799047.

Neska eskaintzen da garbiketara lanak edo adinekoak zaintzeko. ☎ 626 852937.

LANA

302 Eskaintzak

Frantses pixka bat dakien neska behar da 6 hilabetez lan egiteko (dendan). ☎ 948 631100 / 666419042.

DONEZTEBE. Jatetxe batean langile bat behar da. ☎ 617333015 / 948451902.

BERA. Ibardinen egunero lan egiteko neska behar da. Frantsesa jakin dezala. ☎ 948 630734.

IRUÑA. Pasteleria bateko obradorean lan egiteko neska bat behar da. ☎ 948 220618.

MOTORRA

501 Salerosketak

Kawasaki KX250 ccko motoa salgai, 1999koa. Prezioa eta egoera onean. ☎ 626 042659 - 948 450882.

Fiat Punto Sporting autoa salgai, 2002 urtekoa. Prezioa: 1.400.000 pezeta. Urte beteko garantia. ☎ 650 297455 edo 948 630292.

Nissan Patrol salgai, sei zi-



LESAKA

- Herrigunetik 800 metrora dagoen etxea salgai
- Garajea, beheetiko solairua 51 m² erabilgarriak
- Beheko solairua, 107 m² erabilgarriak
- Bigarren solairua, 113 m² erabilgarriak
- Tximeneta, berogailu zentrala eta lorategia.
- Ekipatua eta mobleztatua.

☎ 948 637281 (denda orduetan)

lindro, NA-S matrikuladuna. 3.500 euro. ☎ 660 377717.

Nissan Patrol motza salgai, NA-S matrikuladuna, tetxo altuarekin. ☎ 655 706073.

Nissan Patrol Top Line autoa salgai, NA-Z matrikuladuna, egoera onean. ☎ 948 630050.

Autorentzat suspentsioa, amortiguadore eta muelle deportiboak salgai. 260 euro. Panasonic CD kargadore, 8 CDkoa salgai, 120 euro. ☎ 686803311 (arratsalde).

Renault Megane 1.9D gorria salgai, berri-berria dago. NA-4858-AS, 140.000 km. ☎ 687 035129.

Bobinak garraiatzeko triler salgai. ☎ 600 903466.

MOTORRA

502 Tailerrak

MENDAUR MOTOR

☎ 948 450333 • DONEZTEBE

Bigarren eskuko kotxeak:

Golf TDI, Opel Calibra, Mitsubishi Montero 3-5 atekoa, Frontera TD 3 ate, Mitsubishi IO, Peugeot 206, Clio Diesel, Opel Tigra

SUZUKIAK ETA VITARAN AUKERAN

ANIMALIAK

602 Salerosketak

Hispanier eta cocker arrazetako nahasketa duten zakurkumeak salgai. Beltzak. ☎ 677 594892.

15 ardi salgai Beran. Umartzeko punttuan. ☎ 636 520627 (Gabriel).

Lau artzain zakurkume salgai, labriak. ☎ 948 450492.

DENETARIK

702 Salerosketak

Erretiroa dela eta traktorea salgai bere osagarriekin (rotataborea, etabar...). Prezioaz solastuko dugu. ☎ 948 407500 (eguerditan).

Lasto enpaketatua eta be-lar bolak siloetan salgai. ☎ 948 631098 (arratsetan).

Haurrendako silleta salgai (kotxea + silleta). Arrue markakoa, estreinatua gabea. ☎ 948 630413.

SAMPI ARAGON ZDANSA

Lur orotariko ibilgailuak (4x4), furgonetak eta autoak erosten ditugu. Eskura ordaintzen dugu

☎ 948450354 - 948625555 • DONEZTEBE - BERKA

ttipi



TXARTELA

rekin

ttipi-ttapa doan eta deskontuak

DESKONTUAK

>> AUTO ETA BIZIKLETA TAILERRAK

ZALAIN MOTOR	Bera	%5 Errekanbiotan eta eskulanean
KATEA BIKE	Bera	%5 Konponketetan
DATUCELAY	Elizondo	%15 Bateria eta frenotan
SANSIÑENA	Elizondo	%10 Olio-aldaketetan

>> AUTO ESKOLAK

SEMPER	Bera	%10 Matrikulan
--------	------	----------------

>> ARGAZKI DENDAK

GOIKO	Bera	%10 Karrete, errebelatze...
AYLA	Bera	%10 Errebelatze
MENA	Doneztebe	%10 Errebelatze
MENA	Elizondo	%10 Errebelatze
ZALDUA	Doneztebe	%10 Produktuetan
ZALDUA	Elizondo	%10 Produktuetan

>> ARROPA DENDAK

EDURNE	Bera	%5 (30 € tik goiti, eskura ord.)
J.J. PICABEA	Doneztebe	%10 Galtza-marka batzuetan ez
KAMAMILA	Doneztebe	%10 (30 € tik goiti)
KATTALINGORRI	Elizondo	%10
IPINGI	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)
FANTXIKE	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)

>> BITXIDENDAK

ETXARTE	Lesaka	%10 Bitxietan
---------	--------	---------------

>> ELEKTROGAILU DENDAK

ALTZURI	Lesaka	%5 Elektrogailuetan
---------	--------	---------------------

>> ESTETIKA ZENTRUAK

AMAIA	Doneztebe	%5 Kosmetikan (30 € tik goiti) %10 Erregalo artikuluetan eta kosmetikan. Merkealdietan ez
-------	-----------	--

>> KIROL DENDAK

IPARLA KIROLAK	Elizondo	%8 (30 € tik goiti)
ZELA KIROLAK	Bera	%5
AGARA KIROLAK	Bera	%5 Kirol artikuluetan

>> LENTZERIAK

MARICRUZ	Doneztebe	%10 (30 € tik goiti)
DEÑE	Lesaka	%10 Lentzerian
MAITE	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)

>> LIBURU DENDAK

NAFARPRESS	Elizondo	%10 Liburu eta ikas materialetan Testuliburu eta bideoak ezik
LEGARRA	Lesaka	%10 Liburu eta ikas materialetan (10 € tik goiti). Estankotan ez
MAIMUR	Leitza	%10 oparitzeko artikuluetan

>> OPTIKAK

OSTARGI	Bera	%10 (30 € tik goiti)
ARGIBEL	Elizondo	%10 (30 € tik goiti)

>> PENTSUAUAK

MENDAUR	Doneztebe	%5 Zakurrena, katuena...
---------	-----------	--------------------------

>> TINDATEGIAK

JAIONE	Doneztebe	%10 (12 € tik goiti)
--------	-----------	----------------------

>> ZAPATADENDAK

KALOTXA	Bera	%5 (18 € tik goiti)
OSTIZ	Doneztebe	%5
TXINELKA	Lesaka	%10 (30 € tik goiti)
MOLINO	Irun	%10

TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAK
saltzen dituen txartelak erosiz,
gauza aunitz lor ditzakezu:
ttipi-ttapa lagundu,
eskualdeko dendak bizkortu
eta erosketak merkeago egin

Informazio gehiago:

☎ 948 63 11 88

Argazki soila: 3,5 €. Bikoitza: 7 €. Ordaintzeko: 1) Bulegoan, dirutan; 2) Hegoaldetik postaz, 0,27€ko 13 edo 26 seilu. 3) Iparraldetik postaz, 3,5 edo 7 €ko txekia. Argazkia itzultzeko kartazala eta helbidea bidali.

Argazkiak berreskuratuzko, bidali kartazala zure helbidearekin.



BEÑAT OIZ CALAHORRA beratarrak 4 urte bete ditu urtarriaren 18an. Zorionak attatto, amatto eta Laidaren partetik.



ARITZ ZULAIKA IRIGOIEN doneztebarrak urte bat bete du hilbeltzaren 19an. Aunitz urtez pottokito! Segi hola! Maite zaitugu! Doneztebeko familia.



XABIER BIDAUR TELLETXEA berrizaundarrak 4 urte bete ditu urtarriaren 25ean. Zorionak Imanol, Edurne, eta Ane eta Maria lehengusinen partetik.



UXUE ITURRIA RAZKIN etxalartarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 9an. Zorionak eta muxu haundi bat atta, ama, Oier eta Markelen partetik.



ANDREA IRIGOIEN RAZKIN iruñarrak 5 urte bete ditu otsailaren 1ean. Zorionak Etxalarko familiaren partetik, muxu haundi bat.



KATTALIN BERASAIN GOIA beratarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 6an. Zorionak Ane eta familia guziaren partetik. Muxu haundi bat.



ANE TELLETXEA IGOA lesakarrak 3 urte beteko ditu urtarriaren 19an. Aunitz urtez eta 3 muxu haundi Harizpeko familiaren partetik.



IBAI ROS SALAZAR beratarrak 7 urte bete ditu urtarriaren 31n. Zorionak familiaren partetik.



Donamariako **BEÑAT LAZKANO ETXALAZEK** otsailaren 5ean beteko ditu 5 urte. Zorionak familiaren partetik.



PANTXIKA BALLARENA TELLETXEA elizondarrak 2 urte bete ditu otsailaren 3an. Zorionak eta muxu haundi bat familiaren partetik.



Elizondoko **UNAI AGINAGAK** 2urte bat beteko du otsailaren 13an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



MAITANE IRIGOIEN MONTES mexikarrak 4 urte bete ditu urtarriaren 22an. Zorionak eta muxu aunitz Oizko familiaren partetik.

NORBAIT ZORIONTZEKO, BIDALI BERE ARGAZKIA, TESTUA ETA 0,27 EUROKO 13 SEILO TTIPI-TTAPAKO HELBIDERA:

ttipi-ttapa


Herriko Etxeko Plaza, 1 • 31780 BERA




LOURDES ETA IRATI leitzarrek otsailaren 20 eta 13an urteak beteko dituzte. Ama-alabei maite zaituztenen partetik urte askoz.



Oiartzungo **AITZIBER** eta **MAIALEN TELLETXEA ZUBIETA** eta Irungo **ALAITZ BENGOTXEA ZUBIETA**, otsailaren 11, 12 eta 16an beteko dituzte 5, 9 eta 4 urte. Zorionak eta muxu bana familiaren partetik.



EGOITZ BALEZTENA leitzarrek otsailaren 17an 2 urte beteko ditu. Muxu haundi bat Aurtizko familiaren partetik.



NAROA BERTIZ ARANBURU lesakarrak urte bat bete du otsailaren 3an. Zorionak familiaren partetik.



“Zure begiendako,
jar zaitetz esku onetan”

KIRURGIA:

Miopia
Astigmatismo
Hipermetropia
Bista nekatua

Zuen poztasuna da
gure garantiarik onena

Donibane Lohitzuneko Poliklinika:
0033 559 513 144



**San Juan de Luz
laser**



ETXALARKO BENTA-HOTELEKO IGERILEKUA



PREZIOAK

EGUNEKO PREZIOAK

	BAZKIDEAK		EZ BAZKIDEAK	
	Haur/Jubilatuak	Helduak	Haur/Jubilatuak	Helduak
IGERILEKUA	2€	3€	3€	4€
GIMNASIOA	2€	3€	3€	4€
IGERILEKUA + GIM	3€	5€	5€	6€

1go hilabeteko BONOA

INSTALAZIOETARA INSKRIPZIOA + IGERILEKUA + MINI-GIMNASIOA & SAUNAK	NAFARROAKO KUTXAKO KIDEENTZAKO	
Inskripzio Familiarra	90€	70€
16 urtetik 64 urte arte	50€	36€
15 ureterarte eta 65 urtetik gora	40€	34€

2 hilabetetik aurrerako BONOAK

	HILABETE 1	3 HILABETE	6 HILABETE
Haurrak/Jubilatuak	24€	54€	108€
Helduak	30€	72€	126€

urte osoko BONOA

	URTE OSOA	NAFARROAKO KUTXAKO KIDEENTZAKO
Haurrak/Jubilatuak	180€	160€
Helduak	210€	190€
Familiarra	300€	260€

haur eta helduendako IKASTAROAK



jacuzzi

soinketa gela

solarium

**informazio gehiagorako
deitu konpromezurik gabe
Tfnoa: 948 635 000**

ORDUTEGIA
 Astelenetik ostiralera14:00-21:00
 Larunbatetan10:00-14:00 / 15:00-18:00
 Igande eta Jai egunetan10:00-15:00

Publizitatea prentsan,
irratian eta
telebistan.

Publizitate kanpainen
antolaketa eta
gestioa.

DISEINU ETA PUBLIZITATEAN,
ZERBITZU INTEGRALA



▶▶ LIBURUAK



▶▶ ALDIZKARIAK

▶▶ BUZOIRATZEKOAK



▶▶ FOILETOAK